

Lidia Txukovskaia  
Lidia Zhukova

Itzulpena:  
Josu Zabaleta

# HAURREK HI TZA







Lidia Txukovskaia  
Lidia Zhukova

# ***HAURREK HITZA***



Lidia Txukovskaia  
Lidia Zhukova

# ***HAURREK HITZA***

Itzulpena: Josu Zabaleta



katakarak  
liburuak

Jatorrizko izenburua (1942): *Слово предоставляется детям*

Egileak: Lidia Txukovskaia, Lidia Zhukova

Jatorrizko lizentzia: Lidia Chukovskaya's Russian text copyright © by Dmitry Chukovsky, 1967 Basque publishing rights are required via FTM Agency, Ltd., Russia, 2022

Itzulpena: Josu Zabaleta

Barruko argazkia: © Max Penson

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2022ko iraila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-77-8

Lege gordailua: NA 2108-2022

Inprimaketa: Alzate Grafikak

## AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA .....	11
HITZAURREA .....	13
<b>BAT</b>	
<b>Egun izugarri bat</b> .....	15
Solominkan .....	15
Ur bila.....	16
Hirugarren eztanda.....	16
Ile gorria.....	17
Bidaiari-trena.....	18
Goizeko lauetan.....	19
<b>BI</b>	
<b>Bidean</b> .....	21
Kontakizuna .....	21
Ezkila-loreak .....	22
Sorgina – Morroia .....	25
Ama zegoen bagoia.....	27
Aita eta ama.....	28
Lurra.....	29
Amorruz.....	30




## **HIRU**

<b>Aurrez aurre</b> .....	33
Zilarrezko labana .....	33
Ukrainan.....	36
Poltsa horiak .....	39
Zerbitzurik interesgarriena.....	42
Ostiralean .....	47
Kea.....	48
Maite dut .....	50
Urretxindorrak.....	51
Buruzagiak .....	54
Ez zen gureetakoia .....	61
Jurka eta biok .....	62
Bi behatz.....	64
Elizan .....	65
Ebelina Matsiuptxenko.....	66
Arrastaka .....	71

## **EPILOGOA**

Uzbekistanen .....	77
--------------------	----





## ARGITALETXEAREN OHARRA

### **GERRA ZAHARRAREN AGERRALDI BERRIA**

Liburu hau ez zegoen gure argitalpen planean. Baina gerra itzuli zen Europara 2022ko otsailean. Moskuk eraso egin dio Kievi, 2014an Kievek Donbass erasotu zuen. Hildakoak, errefuxiatuak, bonbardaketak, haurrak, soldaduak, hegazkinak, mapak. Eta duela 80 urte, 1942an, Ukrainako haur erbesteratuen testigantzak jaso zituzten liburu bat etorri zitzaigun gogora: Lidia Txukovskaia eta Lidia Zhukovaren *Haurrek hitza*. Bigarren Mundu Gerrarengatik milioi bat lagun baino gehiago ebakatu zituzten SESBen mendebaldetik Uzbekistanera. Tartean berrehun intelektual baino gehiago (Anna Akhmatova, Boris Pasternak, Kornei Txukovski) egon ziren haurrak zaintzen.

Liburu honek ez du aurrez argitaratu ditugun Lidia Txukovskaiaren bi lanekin zer ikusirik, honakoa ahozko gerra kronika bat da, ez du muntaiarik, idazleak idazkari lanetan ari dira. Hemengo testuak, aurrenekoz Taxkent eta Moskuko egunkarietan argitaratu ziren, liburu gisa 1942an argitaratu zuten, Taxkenten.

Iruñea  
2022ko iraila



## HITZAURREA

Haur normalen, arrunten biografiak interesatzen zitzaizkigun. Ez genbiltzan heroi bila. Umezurtz etxe batetik bestera mugituz, takigrafiaz jaso genituen Uzbekistanera ebakuatutako neska-mutilek kontaktzen zituztenak.

Oso-oso gutxi landu genuen materiala. Hauek ez baitira hurrei buruzko saiakerak, haurren beraien kontakizunak baizik. Errusierako literatura-hizkuntzaren arauetatik urruntzeak ez gintuen kezkatzen: alderantziz, kontu handiz gordetzen genituen bakoitzaren hizkeraren lekuko ukitu eta ezaugarri berezi guztiak.

Ahalik eta zehaztasun handienaz saiatu gara gertaeren deskripzioa gordetzen ez ezik, baita irakurleari kontatzaileen ahotsa, egiazko doinua eramaten ere.

Lidia Txukovskaia, Lidia Zhukova  
Taxkent: Errusiar Idazleak, 1942



# BAT

## EGUN IZUGARRI BAT

### **Solominkan**

...Tranbian joan nintzen aitaren lanera, Solominkara, eta hark lan egiten zuen dendan eserita nengoen; bat-batean alarma jo eta bonbardaketa hasi zen. Dendan bazen leiho handi bat; leihotik soroak ikusten ziren eta soroetan emakumeak etzanda, eguzkitan beltzarantzen. Alarma eta bonbardaketa hasi zirenean, emakume guztiak zutitu ziren belarretatik, ihes egiteko, baina nazien hegazkina beherago jaitsi eta airean geratu zen, gelditu eta airean geldi balego bezala, eta emakume guztiak tirokatu zituen, bata bestearen ondoren; emakume batek baizik ez zuen asmatu ihes egiten.

Ez nuen leihotik begiratu nahi, baina begiak joan egiten zitzaizkidan hara. Eta zer ikusiko: emakumeak lurrean etzanda berriro; orain hilda, ordea, eta ez eguzkitan beltzarantzen.

*Vera Litvinsky, Kiev-ekoa, 13 urte.*

42-III-13an jaso, 9. umezurtz-etxean, Taxkenten.



## Ur bila

Eltzekoa eta makarroiak genituen lehenengo platera. Amak platerak beteak zizkien denei: aitari, arreatxoari –lau urte, bost egiteko– eta bi anaia txikiei; ni, horretan, patiora bidali ninduen ur bila: te-ontzia betetzera.

Te-ontzia hartu nuen, jaitsi nintzen, eta non ikusten ditudan: hegazkinak hegan. Hegaletan eta isatsean gure izarrak zituzten alde guztietan. Iturriraino ozta-ozta iritsi nintzen, eta non entzuten den txistuhots bat, gero ziztua, burrundara, eta lasterka joan nintzen; harriak eta ke beltza besterik ez; ez amarik, ez anaia txikirik, ez neskatxorik...

Aita harrien azpian aurkitu nuen. Baina burua eta esku bat falta zitzaizkion.

Vitia Yakuxevits, 14 urte, Minsk-ekoa.

42-IV-4ean jaso, Berrogeialdiko umezurtzetxean, Taxkenten.

## Hirugarren eztanda

...Egun izugarri batean uluka hasi ziren lan-tegiatako, fabriketako, burdinbideetako sirenak. Hiri gainean naziak azaldu ziren. Bakarrik nengoen etxean. Lasterka abiatu nintzen Dnieper ibairantz, haren ertze-tako harkaitzetan ezkutatzeko. Kalearen beste aldean ama ikusi nuen, lasterka. Eta horretan bonba bat leher-tu zen bion artean. Ama erori egin zen, baina zutitu eta lasterka abiatu zen berriro. Beste bi bonba leher-tu ziren haren inguruan. Berriro erori zen; begiratu eta oraingo honetan zauritu egin zuten: odola zerion ahotik eta albotik. Baina zutitu eta lasterka abiatu zen berriro. Beregandik gertu nengoen dagoeneko; garrasi-ka ari zitzaidan.

Eta berriro, hirugarren eztanda. Erori egin nintzen, eta ama ere bai. Gero ondoratu egin nintzaion, dagoeneko hilda zegoela ikusi nuen.

*Petia Koniaiev, 13 urte, Mogilev-ekoa.*

42-II-10ean jaso, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Ile gorria**

Luzia eta biok sokasaltoan ari ginen patioan, eta alemanak bonbardatzen hasi ziren bat-batean. Erlojudun bonbak botatzea bururatu zitzairen. Komunitate-batzordearen egoitza aurrean bonba bat zegoela ikusi nuen. Hantxe zegoen, egonean, eta gero, bat-batean, komunitate-batzordearen egoitza kito.

Gaur bonbardatzen hasi, eta biharamunean esan ziguten: alemana ez dago urruti. Alemanak bazetozela entzun genuenez, guk eta ingurukoek haur txikiak hartu eta barrurago sartu ginen Errusiako mugetarantz.

Guk alemanak ikusiak genituen 39. urtean, giltzak kendu eta etxebizitzetatik kanpora botatzen gintuztenean: «Zoazte nahi duzuen lekura, hori ez da gure kontua».

Gu, basoan ezkutatu ginen amarekin eta auzoko gainerakoekin, zuhaitzen babespean. Etxean ezin zen ezkutatu, bonbak etxeetara botatzen zituztelako beti. Ihesi gindoazenean, mando eta gizon-emakume hilen gainetik igarotzen ginen. Gauez ibiltzen ginen eta egunez ezkutatu. Neska bat goroldiotan etzanda zegoen; haren eskuak, hankak eta behatzak, zein bere aldetik banatuta zeuden denak. Hemen neska, han hanka, harago behatza.

Eta alemanek beste neska bat jo zuten metraila-gailuaz, jakin genuenez. Genia, oso ile-zuria. Ondoko etxetxoan bizi zen. Amak esan zion: «Gu bagoaz, Genia, gu bagoaz». Eta hark: «Ez, ama, ni hemen geldituko

naiz, neure ohean hilko naiz». Amak esaten dio: «Nola! Zure ama badoa, zure ahizpatxoa badoa, eta zuk ere ihes egingo duzu». Baina amak ez zion eskutik heltzen, eta hura lasterka zihoan bere gisa aurrera. Amak haur txikitxo bat zeraman besoan. Eta horretan alemanak metrailagailuz tiroka hasi ziren eta neskato hura buruan jo zuten. Belarrietatik, sudurretik odola zerion. Ilea zuria zuen, baina odolagatik gorria bilakatu zen. Eta dagoeneko ez zegoen bizirik. Ama etorri zen, ikusi zuen: Genia dagoeneko ez zegoen bizirik.

Hala gindoazen, lasterka egin eta ezkutatu, lasterka egin eta ezkutatu. Hanka non jarri begiratzen duzu, hildakorik ez zapaltzeko. Bonbak botatzen zituzten, metrailatu egiten gintuzten. Zuhaitzen azpian etzaten ginen, eta handik ikusten genuen alemanak nola jaurtitzen zituen espioiak. Eta tankeak ere jaisten zituen. Ez tanke osoak, zatika baizik. Eta gero espioi haiek tanke osoak egiten zituzten bizkor-bizkor. Orduan amak esaten zigun: «Bizkorrago, bizkorrago, bizkorrago, haurrak, goazen lasterka!». Eta bihotz ahula zutenak, izutu eta lurrera erortzen ziren.

*Ania Lebel, 13 urte, Lviv-ekoa.*

42-III-21ean jaso, Berrogeialdiko umezurtzetxean, Taxkenten.

### **Bidaiari-trena**

Beirak zarata egiten hasi zirelako esnatu nintzen. Gure etxea trenbide artean zegoen, eta beirek beti egiten zuten dardara trenengatik, baina oraingo honetan bestelako burrundara egiten zuten.

Jantzi eta begiratzera atera nintzen.

Hori baino pixka bat lehentxeago, ordea, 4-30 bidaiari-trena igaro zen. 4-30 trena bidegurutzean gelditu eta sutan zegoela ikusi nuen, eta haren gainean

hegazkina hegan. Inguruan ke, su eta jende asko zegoen. Azkeneko bagoia, salgai-trena, eta beste bat, bidaiariena, sutan zeuden. Hegazkinak gora egin zuen. Jende zauritu belztua karril-inguruan barreiatuta. Haiei begiratzeak beldurra ematen zidan. Bagoi bate-tik emakume batek salto egin zuen, besoetan haurtxo bat zuela. Haurrak aurpegitxoa odoletan zuen den-dena. Eta hegazkina jaisten ari zen berriro. Non ezkutatu begiratu nuen, baina denekin batera geratu nintzen. (Jende asko zegoen dagoeneko han: batzuk zaurituak eramaten, beste batzuk sua itzaltzen)... Horretan, zerbaitek ziztu egin zuen, txilibitu baten gisan, baina makinistak trena abiarazi zuen, eta bonbak ez zuen jo bidaiarien bagoian, posta-bagoian baizik. Han su hartu zuten paketeek, gutunek eta fardelek, eta segituan argitu zen dena, goiza ez baina eguerdia balitz bezala. Eskulangintzako eskolako mutilak lasterka etorri eta posta eramaten hasi ziren. Nik ere haiekin ekin nion. Gutun-zaku bati heldu nion, eskuetan mugitzen eta zimurtzen zitzaizkidan, eta handik, barrutik, garrak atera eta aurpegia erre zidaten.

Berehala iritsi zen suhiltzaileen trena. Nire aitak deitu zien telefonoz.

*Volodia Andreiev, 11 urte, Lidakoa.*

42-II-10ean jaso, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Goizeko lauetan**

Goizeko lauetan tiroak entzun genituen bat-batean. Korrika patiora joan ginen, eta kea ikusten zen alde guztietan. Orduan gauzak paketatzen hasi ginen. Gure kalean tiroka ari ziren, granadak lehertzen ziren, bonbak erortzen ziren. Aitak zalgurdia lotu zuen –zalgurdi-gidaria zen– eta orga bat lotu zion zalgurdiari. Jantziak etxetik atera eta gurdian lotu genituen. Bai-

na ez zegoen gauza guztiak hartzeko astirik; ondoko etxeak sutan zeuden dagoeneko. Zalgurdian eta organ eseri eta abiatu egin ginen: aita, ama eta bederlatzi seme-alabak: anaia ile-apaintzailea, anaia jostuna, Rosa, Zuska, ni, Genia, Ada, Xana ahizpa gazteagoak eta Srolík anaiatxoak. Hiri osoa ketan zegoen. Kaleetan jendea batera eta bestera zebilen ke artean, haurrak besoetan eta bizkarrean fardelak zituztela. Gazteak lasterka zebiltzan, eta zaharrak eta haurrak erori egiten ziren.

Letoniara daraman errepiderraino iritsi ginen. Han zeuden ihesi zihoazentzako kamioiak. Jende pila bat zebilen haien inguruan. Amak deiadar egin zigun: «Haurrak, zoazte kamioietara eta salba zaitezte bizkor; aita eta biok gurdian joango gara». Eta ama haurrei kamioi gainera igotzen laguntzen hasi zen. Orduan galapan zihoan norbaiten zalduak bota zuen. Negarrez hasi ginen, eta ama zutitu eta, gu lasaitzeko «Ez da ezer, ez dut minik» esan zigun.

Ni azkeneko kamioiaren ondoan nengoen zutik. Inondik ere ez nuen nahi kamioira igotzerik; amarekin geratu nahi nuen. Baina amak esan zigun: «Zoazte, haurrak, eta salba ezazue zuen bizitza. Oraindik gazteak zarete, bizi egin behar duzue. Aitak eta biok bizitzaren erdia baino gehiago bizi izan dugu dagoeneko». Kamioia abiatu egin zen, amak oihu egin zidan «igo kamioira!», eta ni bizkor-bizkor igo nintzen autora.

Hala alde egin genuen, ez amari ez aitari agurrik egin gabe.

Gehiago ez genituen ikusi.

Rokha Oser, 15 urte, *Tauragë-koa*.

42-II-8an jasoa, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

# BI BIDEAN

## **Kontakizuna**

Gure umezurtz-etxea ebakuatu zutenean, alemanek tiro egin ziguten. Garbi ikusi behar zuten, jakina, neska-mutiko haiek bazihoazela, mozkortuta ez bazeuden edoitsuak ez baziren behintzat, baina berdinezien: punturen bat mugitzen ikusten zuteneko, ezin ziren tiroka eraso gabe geratu.

Baina gu ez gintuzten jo.

Gurdiaren aurrean aitona gurdi-gidaria zihoan. Haren gurdia zen gidaria. Haren ondoren, bigarren, Mixa Vlasovek agintzen zuen; haren gurdia mendekoa zen. Ni aitona-gidariarekin nindoan, lehenengo gurdian. Denok maite genuen. Askotan ipuinak eta abentura militarrek kontatzen zizkigulako maite genuen; austriarren preso egon zen gerra hartan. "Non egon da gerra hori orain arte!" esaten zigun. Eta zaldiei geure eskutik jaten ematen uzten zigun.

Horrela joaten gara eta gure bizitza gogoratzen dugu. Azken aldi honetan askotan joan izan gara ospitalean hitz egitera. Gutako bakoitzari soldadu zauritu

bat izendatu ziguten, eta gure soldadu zaurituari ahots goran irakurtzen genion eta opariak ematen genizkion: kolonia-ura, zigarroak, arkatzak, betaurrekoak eta abar... Nire soldadua teniente zahar bat zen, Nikolai zuen izena, bularretik atera zioten lehergai-puska erakutsi zidan.

Eta bat-batean non entzuten dugun: hegan doana ez da gure hegazkinetakoa. Etsaien hegazkinen burrunba beldurgarria du, urrumaka, uluka, ez gureena bezalakoa, gureek burrunba arin bat dute. Gu izutu egin ginen, jakina, baina ez asko-asko, zeren gure artean haur txikiak ere ohituta baitaude dagoeneko bonbardaketetara eta horrelako gertaeretara. Hegazkina behe-rago jaitsi eta gure gurdiari tiroka hasi zen -kras! kras!-; balek hezurretan jo zituzten batzuk, eta beste batzuk errebotez: bira, bira eta lurrera. Haurrak oihuka hasi ziren: «Etzan? Edo zer?». Eta aitona zalgurdi-gidariak esan zuen: «Etzango gara geroago horren aurrean! Goazen hemendik, salbu egongo gara!». Eta zaldiak akuilatu zituen. Eta Mixa Vlasovek ere akuilatu zituen. Aurrera jo genuen, eta aitona gurdizainak ipuin bat kontatzen zigun oihuka, beldurrik izan ez genezan.

Eta egia: ez gintuen jo, eta berehala iritsi ziren gure gudu-hegazkinak eta aleman hegazkinak ihes egin zuen, tigrekume basati batek bezala.

*Valia Iliaxenko, 14 urte, Mariupolekoa.*

42-II-10ean jaso, 31. umezurtz-etxean, Taxkent.

### **Ezkila-loreak**

Ederki bizi ginen han. Gure umezurtz-etxean bagenituen oiloak, usoak, txerriak, zaldiak. Osaba Petiak zaintzen zituen zaldiak. Zaldi haietan ibiltzen uzten zigun: ibairaino joan eta buelta. Batek Gromik zuen izena, besteak Lutra eta hirugarrenak Arrano. Arrano-

ren izena Haize ere izan zitekeen, halakoxe abidan ibiltzen zen-eta. Kolkhosetik ekarri zizkiguten. Baina Lutrak zalditxo bat izan zuenean, kolkhosera itzuli genuen berriro.

Gure baratzean lutzarbiak, kuia luzeak, tipulak hazten ziren. Eta lorategian loreak landatzen genituen: izartxo txuriak bezalakoak, bioletak eta lorerik ederrenak: ezkila-loreak.

Gure nagusiak aberatsak ziren: meatze-zuzendaria. Xestakov bera ere etorri zen guregana jaietarako: han inguruko pertsonarik garrantzitsuena zen. Ukrainako dantzak dantzatu genituen, kantatu eta olerkiak errezitatu, eta gozoki-poltsak eta gozopilak ekarri zizkigun. Gero nagusiek lorategi bat eman ziguten; bai, lorategi oso bat, eskolatik ez oso urrun. Gereziak eta albertxikoak biltzera joaten ginen hara.

Gerra hasi zenean, gure zuzendaria berehala joan zen gudarostera. Meatzea lehertu zuten alemanen eskuetan gera ez zedin. Eta Piotr Ivanovitch meatzaria bidali zuten guregana, bi egunetan gu handik ateratzeko aginduarekin, gu ere alemanen eskuetan eror ez gintezen.

Baina nola atera gu handik, bagoi guztiak Gudaroste Gorriak autoetarako eta tankeetarako erabiltzen bazituen? Orduan trenbideetako langileek beraiek egin zituzten bagoiak guretzat. Ikatz-plataformak erabiliz. Etxetxoak balira bezala egin zituzten. Gau osoa eurrant, alemanak bonbak botatzen, eta haiek lanean. Ez ziren asko-asko: zazpi lagun. Eta bost bagoi egin zituzten. Gau eta egun aritu ziren lanean, eta guk etzanda igarotzen genuen egun osoa. Haiek zezenak hil, zerriak hil, eta ontziak paketatu, oihaleria paketatu, oheak paketatu, ogia egosi, eta hamar upel gurin eta urdai ere hartu zituzten.



Gauean, ilundu eta gero, binaka lerrokatu ginen.

Txikiak zalgurdian jarri zituzten. Gauzak gurdietan. Eta gu oinez, Galina Artemievna, Maria Mikhailovna eta Piotr Ivanovitxekin.

Lastima ezkila-loreak eta gure gela leihodunak utzi beharra... Geltokian hormak baizik ez ziren geratzen. Trenbidean trabesak, errailak eta harriak. Bagoietan eserarazi gintuzten. Oholezko ohatze gisako batzuk zeuzkaten eginda han; batzuk sabaitik hurbilago, beste batzuk zorutik hurbilago; haietan lastairak eta mantak jarri eta etzan egin ginen. Egon, egon, baina lokomotorea ez zen abiatzen. Etzan eta pentsatzen genuen: nola egongo ote da gure etxetxoia gu gabe, nola ote daude gure loreak?... Gero lo hartu genuen. Eta lo ginela lokomotore txiki bat etorri zen Konstantinovkatik. Txikia zen, xaharra, eta abiatu zenean, denak erori ginen ohatzeetatik. Txikia bai, baina sendoa.

Hurrengo egunean Debaltsevo-ko geltokian geunden. Eta, bat-batean, hegazkin-burrunba entzun zen. Eta nola jotzen zuten tata-tata; arimak belarrian jotzen duen bezala! Balak gurpiletan klaska eta klaska.

Hezitzaileek lasai egoteko esan ziguten, eta guk, goreneko ohatzeetan geundenak, hankak luzatu, sabaiaren kontra bultza egin, oholak jaso eta begiratu egiten genuen. Ez genuen ezer ikusten, airea besterik ez, baina begiratu egiten genuen. Eta balak gurpiletan: klas, klas, txilina bezala.

Gure hegazkinen kontrako metrailadoreak tiroka hasi eta naziak uxatu zituzten. Orduan tren berri abiatu zen.

Eta zirrikitu haietatik Volga eta bapora txikiak ikusi genituen geroago.

*Kolya Dmitrenko, 10 urte*

*Lenya Dubtxenko, 10 urte*

Vanya Vasiliev, 10 urte  
Hirurak Sxerbinovkikoak (Donbass).  
42-III-21ean jasoa, Berrogeialdiko umezurtz-  
etxean, Taxkenten.

### **Sorgina – Morroia**

Alemanak inguruko etxe guztiak bonbardatzen hasi ziren, eta nire adiskide Genia eta biok hain beldurtuta geunden, hain beldurtuta, non kalera bakar-bakarrik salto egin eta basora abiatu baikinena korrika. Basoan emakume, aiton-amona eta haur txiki pila bat zegoen; haur batzuk beren amarekin, eta beste batzuk bakarrik, gu bezala. Goizera arte geratu ginen basoan. Gure ondotik ziztu bizian igarotzen ziren kamioak errefuxiatuekin. Genia eta biok auto berari erregutu genion eta eraman egin gintuzten. Auto hura urki-adarrez estali genuen alde guztietatik, alemanen hegazkinak gainetik auto bat ez baina basoa zela uste izan zezaten. Nolanahi ere, Minskera hurbiltzen ari ginenean alemanen hegazkinak gure autoari eraso egin zioten. Eta nola hasi ere, nola hasi ziren metrailagailuak burrunbaka! Autotik atera eta troka batera jo genuen lasterka. Luzaro egon ginen troka hartan. Eta errepidetik sorora jotzen zuten guztiei bonbaka eta tiroka erasotzen zieten alemanek. Bederatzi bonba bota zituzten guregandik hurbil; zazpi pertsona zauritu zituen metrailak, eta bi hil zituen. Orduan gure ehiza-hegazkinak azaldu ziren eta alemanak sakabanatu zituzten. Horrekin aursardia hartu genuen, trokatik atera eta aurrera jarraitu genuen.

Minskera iritsi eta atzera itzuli ginen segituan. Minsk osoa erretzen ari zen, harriak baizik ez ziren geratzen zutik. Zauritu eta hildako asko ikusi genuen bidean. Leku batean bazegoen sorbaldan eta hankan

zaurituta zegoen emakume bat. Ondoratu gintzaizkion, eta malko artean esan zigun: «Neskak, askaiezadazue buruan dudana zapia eta lotuiezadazue hanka». Eta zapia kendu eta hanka lotu genion. Beroki on bat zuen; beregandik gertu zegoen. «Har ezazue berokia zuentzat, neskak», esan zuen; baina ez genuen hartu, pentsatu baikenuen gaur bizirik ginela eta bihar berdin gertatuko zitzaigula guri ere: edo hil egingo gintuzten, edo zauritu egingo gintuzten.

Ekainaren hogeita lauan, arratsaldeko seietan, Mogilev-era iritsi ginen eta trenera sartu gintuzten. Hasieran asko poztu ginen. Baina Orsha inguruan, alemanen hegazkinak gure trenari tiroka hasi zitzaizkigun, eta orduan zekale sorotara jo genuen eta bi egun ez egon ginen zekaletan; naziek xehatzeraino bonbardatu zuten gure trena, eta gure inguruan ere bota zituzten hiru bonba. Zanga batean ezkutatu ginen. Bonba batek erabat estali gintuen hondarrez. Orduan burua astindu eta trenbiderantz abiatu ginen korrika.

Handik ordu batzuetara beste tren bat igaro zen trenbidetik. Guregandik gertu gelditu zen, eta Genia, neu eta beste batzuk hartan kokatu ginen. Tren hartan goseak geunden. Jende askok ogia eta dirua eta zeukatenetik jaten eman ziguten. Baina alemanek gauero tirokatzen zuten tren hura... Azkenean, gure trenean espioi bat zihoala esan ziguten gurekin zihoazenek. Morroi bat zen, baina emakumez jantzita zihoan, eta emakumea zela uste genuen denek. Ilundu bezain laster, eskailera-mailara ateratzen zen. Jendeak ilundu bezain laster bagoitik eskailerara zergatik ateratzen zen galdetzen bazion, erantzuten zien ezin zuela bagoian joan, goragalea ematen ziola... Eta gau batean emakume batek ikusi zuen emakumez jantzitako gizon hura eskaileran zegoela poltsatxo batekin, eta

poltsatxoa zabaldu eta seinaleak egiten zizkiola alemanen hegazkin bati. Geltokira iritsi ginenean, emakume hark bi poliziarri deitu eta espioi hura harrapatu zuten. Oinetan burdin-hariak zeuzkan lotuta.

Orain Taxkenten bizi naiz, umezurtz-etxe batean, eta bosgarren mailan nago. Hasieran, Taxkentera iritsi nintzenean, basati samarra nintzen, eta oso bero egiten zuen, gainera. Orain ohituta nago, ondo sentitzen naiz. Baina gerra amaitu bezain laster, etxera joango naiz nolana ere, Bielorrusiara.

*Marusia Lappo, 12 urte, Pruzhani-koa (Bielorrusia).*

42-II-8an jaso, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Ama zegoen bagoia**

Gerra hasi bezain laster, aita Hegazkinen eta Gerra Kimikoaren kontrako Defentsako buruzagitzara joan zen. Bi txartel eman zizkieten: niretzako txartela eta amarentzako txartela. Ama eta biok, txartel horiekin, abuztuaren 20an trenera igo eta joan egin ginen. Nire lehengusu txiki Jaxa ere gure bagoian zihohan, bere amarekin.

Trenak ehun eta hogeit hamar kilometro egin zituen gauean, eta Nezhin inguruko leku batera iritsi ginen. Orduan nazien hegazkinek eraso ziguten. Soroetara jo genuen, denak lasterka, emakumeak, haurrak, nire ama, Jaxaren ama eta ni: sasi artean ezkutatzera. Alemanak beherago jaitsi, soro gainera, eta gure sasiak eta jendearen kontra josi beharrean hasi ziren. Ondoren hegan alde egin zuten. Gu bagoietara itzuli ginen; ni Jaxarekin joan nintzen; eta zenbat geratu ziren soroetan! Batzuk ahoz gora, beste batzuk ahuspez. Eta belarretan odola alde guztietan.

Bakhmatx inguruan berriro azaldu ziren faxistak. Bagoia bonbaz jotzen ahalegindu ziren, baina

bonbak inguruan erori ziren denak. Soroetara jo genuen berriro korrika, eta berriro jendeari tiroka eraso zioten. Hurrengo bagoian emakume bat neskatxo batekin zihoan; alemanek neska hil zuten. Amak hantxe ehortzi zuen, soroan. Gizonek zuloa egin zuten. Neska anda batzuen gainean jarri, oholez estali zuten eta lurrera jaitsi zuten.

Aurrera jarraitu genuen, eta Konotop inguruan faxistak hodei baten moduan azaldu ziren, hamahiru hegazkin batera. Egunez zen. Eguzkiak distira egiten zuen, eta amak esan zidan: «Zu eseri hor kanpoan, eta nik bazkaria prestatuko dut». Bagoian zegoen, janaria prestatzen, garbitzen, horixe. Ni bagoiaren ondoan eserita nengoen eta liburu bat irakurtzen hasi nintzen: «Zateinik» aldizkaria. Jolas dibertigarriak zekartzan. Bat-batean, hegan azaldu ziren. Jendea segituan ezkutatatu zen bagoien azpian. Eta behe-behera jaitsi, gizon baten altuera baino gorago ez, eta bagoipera tiroka hasi ziren. Beldurtu egin nintzen; lasterka abiatu nintzen, ez dakit norantz, soroan. Eta orduan bonbak botatzen hasi ziren, eta oraingoan trenean jo zuen. Bagoiek su hartu zuten. Ni soroan zehar lasterka nindoan. Soroa zabal-zabala zen. Garia azaotan zegoen dagoeneko. Aza artean ezkutatzen nintzen.

Gari artetik begiratu nuen; trena sutan zegoen, eta ama zegoen bagoia ere bai.

*Tania Aisenberg, 13 urte, Kiev-ekoa.*

*42-II-13an jaso, 9. umezurtz-etxean, Taxkenten.*

### **Aita eta ama**

Geltokian geunden. Aita lo zegoen. Amari komu-nera joateko baimena eskatu nion.

–Itzuli bizkor! –esan zidan amak.

Gure herriko hiru zihoazen tren hartan.

Iluntzen ari zuen dagoeneko. Lurrun makina ura hartzen ari zen.

Komunetik entzun nuen: bonbardaketa hasia zen. Lasterka joan nintzen gure trenera.

Bagoitik urrun samar zeuden aita eta ama etzanda; tirokatuta.

Tirokatu egin nahi zituzten, seguru. Eta metrailagailuz tirokatu zituzten. Zauriak estali nizkien, odola atera ez zedin. Aita esnatzen saiatu nintzen: zaurituta dago, pentsatu nuen. Baina alferrik.

Gero aita amaren ondora eraman nuen, hurbilago egon zedin.

Aurpegira begiratu nien, negar egin eta pusken bila hasi nintzen.

*Donia Khaienko, 13 urte, Kyrykivka-koa (Ukraina, Sumi eskualdea).*

42-III-17an jaso, 2. umezurtz-etxean, Taxkenten.

## **Lurra**

Bila Tserkva ingurutik abiatu ginen gurdiz. Orduan hamabost hegazkin azaldu ziren eta tiroketa bizia hasi zen. Hasieran metrailagailuz tirokatzen zuten, eta gero hamabi bonba jaurti zituzten. Gu zekale-sailean etzan ginen. Ahuspez etzan ginen denak. Eta bat-batean lurra erori zitzaigun gainera. Lurpean etzanda nengoen, ez dakit zenbat lurren azpian. Lurra nuen ahoan, lurra sudurrean, eta belarrietan, gizakia ez baina egiazko sarraski bat banintz bezala. Gauza bat bakarrik pentsatzen nuen: zergatik ez daukat pistola bat neure buruari tiro egiteko. Baina alferrik pentsatu nuen: azken finean, ezin nuen eskua mugitu.

Gurekin zihoan bat oso indartsua zen edo ez zegoen hain estalita, eta bere kabuz libratu zen. Militarrei deitu zien, eta atera egin gintuzten.

*Alioxa Safreiner, 15 urte, Peloponne-koa (Ukraina).  
42-III-28an jasoa, Taxkenten.*

### **Amorruz**

Kanal estu batetik ibiltzea izan zen ederrena. Izei guztiak ikusten dira handik. Gainaldean eseri eta izeiak kopiatzen nituen.

Abuztu arte ez ginen atera Leningradetik, amonaren zain geundelako. Amak beldurra zuen trenez ibiltzeko, asko bonbardatzen baitzituzten, eta gabarra batean joan ginen. Apaletan koltxoiak eta mantak jarri eta apartamentu bereizi bat bezalako zerbait egin zuten. Apal batean bizi ginen.

Hiru gabarra eta bi txalupa ginen. Bapore baino txalupa gehiago zeuden Nevan. Txalupa handi batek bi gabarra garraiatzen zituen, eta besteak, txikiak, gurea. Ikusi beharko zenituzke zein marinel trebeak genituen: txalupatik gure gabarrara sokatik igarotzen ziren zuzenean, gerra baino lehen amarekin zirkoan ikusi genuen emakume bat bezala.

Gero Volga iritsi zen. Mendiak marraztu nituen eta haien atzean hodeiak. Rybinsk-eraino iritsi ginen; han ura arre bihurtu zen, algengatik. Egunargiz zen, bazkaltzera gindoazen. Bat-batean, hodeien artetik burrunba handi batez, hegazkinak azaldu ziren. Esklusarantz jo zuten, eta haien atzetik gure ehiza-hegazkinak. Ez ziren eskusaraino iritsi; izutu eta gure gabarraren kontra bota zituzten bonbak, amorruren amorruz. Sirenak jotzen hasi ziren, eta jendeak are ozenago egiten zuen oiuhu. Puntutxo xehe batzuk ikusi nituen, geroz eta gehiago eta gehiago ziren airean, eta erori zirenean, ez nituen ikusten, ezta entzun baidizik ez nituen egin.

Bi gabarra bertatik joan ziren hondora, eta beren ondoren eraman zuten txalupa. Zazpiehun lagun ziren gabarra bakoitzean. Garrasika egiten genuen, eta haur askok ostikoka egiten zuten. Gure txalupa guregandik askatu eta hura salbatzera joan zen, baina ura zurrunbilotan zebilen eta ezin izan zituzten batelak uretaratu. Eta gabarrek beren atzetik hondoratu zuten txalupa.

Ez zapi bat, ez ezpal bat ez zen azalera atera.

*Olia Guselnikova, 10 urte, Leningrad-ekoa.*

42-III-28an jaso, Taxkenten.





# HIRU

## AURREZ AURRE

### Zilarrezko labana

...Denetik gertatzen zen. Aleman bat jauzi batez etxera sartu, emakumearengana joan eta esan zion: «Esadazu, gudaroste gorriko soldadurik bada hemen, zure etxean? Non ezkutatu dituzu?» Emakumeak esan zion: «Ez dago inor, nire senarra hila da gerran, eta besterik ez dakit». Emakume hura ez zen errusiarra, tartariarra edo Kaukaso aldekoa baizik. 14 urteko mutila zuten, eta horra non, alemanak amari lepotik heldu eta hormaren kontra estutzen ari zenean, hark zerbait esan zion kaukasieraz. Hiru labana zituzten: bat ogia mozteko erabiltzen zutena, bestea anaia-aren labana (anaia Gudaroste Gorrira joana zen) eta hirugarrena, aitarena, zilarrezko kirtenduna. Mutilak zilarrezko labana hartu zuen, atzetik hurbildu eta ezkerreko sorbalda-hezurraren azpitik sartu zion alemanari. Alemanak «Oi!» besterik ez zuen esan, eta erori egin zen.

Denetik gertatu zitzaigun. Ia-ia aleman ofizial bat hil nuen.

Alemanak geltoki inguruan sartu ziren, eta aste oso batez luzatu zen borroka kalean. Amak ez zidan uzten etxetik irteten; «Norbaitek hiltzen bazaitu eta aita gerran hiltzen badute, norekin egon behar dut nik? Ez joan» –esaten zidan. Nik denean laguntzen nion, ura ekartzera joaten nintzen, egurra zatitzen nion, eta horrelakoak. Baina ez nion obeditzen, kalera ateratzen nintzen. Kalean gotorlekuak egin zituzten adreiluz, eta haietan zuloak, fusilentzat. Gertatzen da tiroketa bortitzak izatea han, eta kartutxo aski ez izatea; hala beste mutiko batzuekin batera, arrastaka hurbiltzen ginen. Borrokalariak edo txakurren bat bidaltzen ziguten, edo harri bat jaurtitzen buruzagiaren idazki batekin, eta gu biltegira joaten ginen. Ezer gabe biltegian ez ziguten ezer emango, jakina, baina buruzagiaren edo nagusiaren ohar batekin, granadak ere ematen zizkiguten. Txakur ezjakina bada, erakarri egin beharko duzu, baina ikasia bada, lasterka etorriko zaizu. Poltsatxo bat izango du lepoan, eta haren barruan ohar bat.

Gudariren batek edo herritar batek laguntza eskatzen duela, hari laguntzen diozu. Azken finean, gudarostera joan ez ginen guztiek egiten genuen orduan borroka, emakumeek, gizonak. Eskatzen zidanari, lagundu. Oholak eramaten nituen, adreiluak garraiatzen, gotorlekuak eraikitzen. Eta abar eta abar: adreiluak, eta gero, zera, oholak.

Gehiena, tiro egitea nahi izaten nuen, noski, baina ez zidaten uzten; txikia nintzela, esaten zuten, eta kito. Eta pistolaren baten bila joan nintzen, gutxienez. Bazen sei solairu zituen etxe bat: hiru solairu haizeak eramane zituen leherketa batean, eta hiru geratzen ziren. Hirugarren solairuan sartu nintzen: joan, begiratu, hau zortea!, arma bat aurkitu nuen! Eta hantxe, biga-

rren solairuan balkoia zegoen, eta balkoian aleman ofizial bat makurtuta, behera begira. Hormatik adreilu bat hartu eta garondora bota nion zuzen-zuzen. Barandarik ez zegoen. Airean erori zen. Ez dakit bigarren solairutik ongi erori zen ala ez, ihes egin nahiago izan nuelako.

Harriak egokiak ziren, lauak; mutil guztiak lasterka joaten ginen Don ibaian, beste aldean, biltzeko. Eta gero atzera itzuli, gameluak bezala zamatuta. Patrikak urratuta. Hara joan ginenean, geltoki ingurua okupatu gabe zegoen oraindik, eta, kaixo, sartu ginen; aleman miatzaileak azaldu ziren. Eta horrela, etxola batean nola sartu ziren, ohetik maindire bat atera eta dena hara nola botatzen zuten ikusi nuen: erloju bat, katiluak, koilareak, errezelak, haurrentzako kanoi bat, panpina mordo bat, haurrentzako auto bat; honelako giltza batez itxi zuten. Agure eta andre zahar batzuei galdetzen hasi ziren: non daude gorrien taldeak? Agurea bertan hil zuten eta autoaren jabea zen haurrari eta andre zaharrari eskuak moztu zizkieten. Baina ez hark ez honek ez zieten ezer esan.

...Denetik gertatzen zen. Behin zauritu egin ninduten. Eginkizun militar batengatik nindoan. Niregandik ehun metrora aleman bonba bat lehertu zen. Etzan egin nintzen, jakina. Hasieran kanoi batek bezala jo zuen; gero, bz, bz! – zatiak zabaldu ziren; zatiketabonba bat zen. Zatitxo mehe batek hankako behatza erdiz erdi moztu zidan. Emakume batek jaso ninduen eta besotan eraman ninduen sorospen gunera. Odola oinetako barrura isuri zen: putzu bete bat.

Vasia Bokhan, 12 urte, Rostov-ekoa.

42-IV-04ean jaso, Berrogeialdiko umezurtzetxean, Taxkenten.

## Ukrainan

Alemanek bi aldetatik inguratu zuten hiria: gure unitateek aldi baterako atzera egin eta biztanleak ebakuatu zituzten. Amona eta anaia txikia ebakuatu egin zituzten.

Nik, ordea, ez nuen ebakuatzerik nahi; ATL-n<sup>1</sup> lan egiten nuen, ikasle moduan. Auto-Traktore Lantegia: ATL-k tresneriaz hornitzen zuen, torlojuak estutzen. Ez zen ebakuatzea bakarrik, baizik eta hiru egunez etxera itzultzeko astirik ez zela izan ere bai; premiazkoa zen etsaiari kendutako tresnak al bait lehen konpontzea, gure borrokalariei al bait lehen baliagarri izan zekizkien. Zuzendaria gudarostera joana zen, kontramaisuak partisoetara, ikasleak ebakuatu egin zituzten, eta nire kontramaisua eta biok geratu ginen lantegian: bera oso zaharra zen eta gudarostera-ko egokia ez zenez, eta ni ere oso gaztea eta egokia ez nintzenez... Pozik nago abizena Buriakov<sup>2</sup> zuelako. Gau eta egun metrailagailuak osatzen aritzen ginen.

Norbait behar zen etsaiari kendutako tresnak konpontzeko. Zer iruditzen zaizu? Benetan!

Eta berandu zen, gainera, alde egiteko. Etxera joatea erabaki nuen. Begiratu nuen, etxea itxita, ez zegoen inor. Leioa jo nuen, gelara sartu nintzen; amak jatekoa eta gutun bat utzi eta Gudarostera joana zen hura ere. Auto-gidari. Didus Buriakov guregandik gertu bizi zen, kalearen beste aldean. Harengana joan nintzen, behar bezala hitz egin nion, ama badut, aitarik ez –negar egin nuen, jakina. Hark esan zidan: bizikleta bat baduk, puztu eta joan hadi. Ibili bizkorrago, mesedez. Baina nora joan, inor ez badut?

---

1 M.T.M. (Машинно-тракторная мастерня): ATL (Auto-Traktore Lantegia). [Ohar guztiak itzultzailearenak dira].

2 Буря (Burya: ekaitza).

Hari kasu egin gabe, erdialdera joan nintzen, han zer gertatzen zen ikustera. Ai, hobe zatekeen nire begiek begiratu ez balute! SS deitzen diren aleman unitate aukeratuak ziren, denak osasuntsu, ilegorri. Neskak harrapatzen zituzten, klubera eramaten zituzten, bertan torturatzen zituzten, eta, gero, su ematen zieten. Gure klubak bi solairu zituen, eta garbi ikusten zen nola jartzen ziren leihoen ondoan eta neskei ez zieten uzten salto egiten. Nik urrutitik begiratzen nuen, jakina; eta neskei laguntzera hurbiltzen zirenei tiro egiten zieten metrailagailuez. Asko hil ziren, erreguka joanak...

Gero, dendak apurtzen hasi ziren, apartamentuetan ogia bilatzen. Bodka edaten zuten, kolonia ura edaten zuten. Parpailak, vaselina, zintak kalean barreiatzen zituzten eta alde guztietan ibili ziren. Ondoren, Alderdiko eta Komsomoleko kideen bila joan ziren. Hemen bagenuen Pavlenko izeneko bat –haren semearen kidea nintzen, Mitia zuen izena– mutil zintzoa, aita, berriz, zerri hutsa; horrela bada, Pavlenko aita hirian geratu zen alemanen mesedetan. Edo maite zituen, edo noizbait jauntxoia izana zen. Horrela bada, joan eta ofizialari esan zion non bizi ziren alderdiko kideak eta konsomolekoak. Ofizialaren botoiak zilarrezkoak ziren, eta hemen, lepoan, laukitxoak zituen eta arrano batek ikur faxista bat zuen erpeetan. Hementxe, marraztuko dizut... Hemendik, ikusi, zilarrezko soka moduko bat zuen zintzilik eta biribil moduko bat egiten zion. Ba, Pavlenkok ofiziala etxe batera eraman zuen; han pintura gorritz idatzita zegoen «Heriotza faxismoari!». SSKoek ez zuten inor aurkitu, eta leihoei joka eman eta eman, etxea txikitzen... Baina alderdiko eta konsomoleko kideei kiratsa zerien kaleetan. Herriaren Auzitegira eraman zituzten, klu-

baren ondoan, kluba erreta zegoelako dagoeneko. Eta han fusilatu zituzten.

Eta zaintzaile nagusi bat eta haren emaztea ere hil zituzten. Leiho ondoan eserita zegoen, erlojua konpontzen. Kluba hor da, eta izkinan erlojuak konpontzeko lantegia. Atean bertan hil zuten. Emaztea garrasika hasi zen, buruko ileetatik indar guztiaz tiraka; metrailagailu batez tiro egin zioten.

Ibaira joan nintzen. Kalea hutsik zegoen, etxean ezkutatu ziren denak. Kanpoaldean tiro-hotsa. Denok joan nahi genuen zentrora, jendea jo ez zezaten, hil ez zezaten. Alemanekin nahastu eta borroka egiten zuten, baina alemanek oraindik ez zieten uzten... Ibaian, harri baten gainean, aleman bat eseri eta zapi bat uretan garbitzen ari zen. Eta ume txiki batek harriak botatzen zizkion. Bota eta bota. Alemana harritu egin zen, pentsatu zuen: Nor ote da harrika, pentsatu zuen. –eta harri baten atzean ezkutatu zen, eta poliki-poliki pistola edo errebolber bat atera zuen; luzea, ez dakit zer eratakoa zen; eta tiro egin zuen. Begira, haurra la-sai zihoan etxera bidean, eta begira, alemanak tiro egin zion.

Alemanak etxez etxe ibili ziren eta dena eramaten zuten. Gero jendea lan batzuk egitera eramaten hasi ziren, errepidea konpontzera: agure zaharrak eta haurrak.

Eta iluntzean gureak itzuli ziren. Gureak nagusitzen hasi bezain laster, horra non azaltzen diren emakumeak ere! Batzuk etxean gelditzen ziren eserita, isilik, beste batzuk salto egin eta liskarretan sartzen ziren: itxituratik makila bat hautsi edo sarde bat hartzen zuten, badakizu, horrela izaten da gure artean Ukrainan! eta Gudaroste Gorriarekin joango ziren alemanei egurra emateko.

Orduan teniente bat hurbildu zitzaigun. Mutilak bildu zituen eta esan zien: «Zuek, mutilak, zoazte hemendik! Zoazte oraintxe bertan!».

Didus Buriakovek bizikleta puztu zidan, igo nintzen, eta alde egin nuen.

*Emelia Umanski, 14 urte, Kirovograd-ekoa.*

42-III-16an jaso, Voronezh-eko musika-eskola militarrean, Taxkenten.

### **Poltsa horiak**

Voltxokek<sup>3</sup> gauean behin zaunka egiten du. Patioan egiten genuen lo, hainbesteko berorik ez izateko. Bera izaten zen beti bonbardaketan esnatzen zen lehenena. Esmatu eta zer ikusiko: amaren leihotik kea eta sua ateratzen zen. Jauzi egin eta kalera atera nintzen. Eta kalean alemanak zeuden.

Aleman soldaduek jendetza zeramaten aurrean. Baziren emakumeak eta haurrak, txiki eta handi, gizonak, zaharrak.

Korrika zihoazen, elkarren bila, negarrez. Soldadu batek fusilaz bultzatu ninduen harantz.

Gure kale eta kaleketan zehar gindoazen, geroz eta urrunago.

Soineko zuri bat neraman eta txapinak oin hutsetan.

Norbait ihes egiten saiatzen bazen, alemanek hil egiten zuten. Ez tiroz, kulataz baizik.

Etxe batetik gertu txirikordetatik tiraka atera zuten atetik emakume bat. Haren atzetik haurtxo txiki bat jaurti zuten. Urtebete inguru izango zuen. Hanka batetik heldu eta kalera jaurti zuten. Emakume batek haurtxoa jaso nahi izan zuen, baina aleman batek bere botaz joz urrunarazi zuen.

---

3 Волчок: abizena, baina baita literalki otsokumea ere, edo ziba.



Herritik basorantz joanarazi gintuzten. Eguzkia argitzen hasi berria zen. Berehalaxe iritsi ginen soil-gune batera. Han emakumeak eta haurrak alde batera bultzatu gintuzten, eta gizonezkoak beste batetik bidali. Ni emakumeekin geratu nintzen.

Eta gizonei galdetu zieten: «Non daude gorrien taldeak?». Eta haiek ez zieten esaten. Inork ez zuen esan. Eta orduan guri: «Non daude gorrien taldeak?». Eta ez genien esaten. Batzuk isilik geratzen ziren, beste batzuek erantzun: «Ez dakit».

Gero mutiko zaharrenak guregandik bereizi eta gizonen artera eraman zituzten. Eta dokumentuak eskatzen hasi ziren.

Beren artean alemanez egiten zuten, jakina, eta guri errusieraz. Esaten ez zekitena, eskuez adierazten zuten.

«Erakutsi paperak». Eta guk: «Ez ditugu, etxean utzi ditugu».

Orduan poltsikoak miatzen hasi ziren. Gizon bat aurrera atera zuten. Poltsikotik paper batzuk atera zizkieten, irakurri zituzten eta buruan joka hasi zitzaizkion. Eta segituan fusila bularrean. Gauza bat besterik ez zuen esan: «Leninengatik! Stalinengatik!» –eta erori egin zen.

Emakumeak negarrez hasi ziren eta mutil batzuk lurrera erori ziren.

Eta, hala, gizon asko tirokatu zituzten. Bat tirokatu, eta haren dokumentua poltsan sartzen zuten. Poltsa hori batzuk zituzten bizkarretik zintzilik. Poltsa osoak bete zituzten dokumentuz. Eta hil ez zituzten gizonezkoak, basora gidatzen hasi ziren. Eta mutikoak ere bai. Amak haien atzetik abiatzen ziren lasterka, baina alemanek fusil-kulataz uxatzen zituzten. Han

zihoan Vania, gure eskolakoa, eta Iliuxa ere bai, hura beste gela batekoa.

Orain bakarrik geratu ginen. Aleman guztiak gure gizonen atzetik joan ziren. Basoan sartu ginen. Berrogei emakume eta neska-mutil ginen. Bagindoazen, ez genekien nora, negarrez. Horretan, tiroak berriro. Tiroak, ezkerreko aldean, nonbait. Ez ditugu alemanak ikusten, baina bai haien balak entzuten. Hantxe emakume bat erori zen. Haren besoetan haurtxo bat. Eta biak erori ziren. Emakumea hil egin zuten, baina haurra bizirik zegoen. Eta emakume gazte batek hartu eta eraman zuen. Dagoeneko ez genuen uste salbatuko ginenik. Non salbatu han! Burua zuhaitz baten atzean ezkuta dezakezu, baina gorputza agerian geratzen da. Gure arteko mutiko bati bala batek kapela zulatu zion. Pozik, hortaz! Niri jantziaren mahuka kateatu zitzaidan. Puska osoa urratu zidan. Jantzi polita: bi toles behean eta bi toles mahuketan. Amak josia.

Korrika gindoazen, heriotzaren zain, eta ez genekien aurki ikusiko geituela gureak.

Belar azpian metrailagailu bat ikusi genuenean ez genuen pentsatu gurea zenik. Alemanak berriro, pentsatu genuen. Eta korrika berriro, metrailagailutik ihesi. Bat-batean norbaitek oihu egin zigun: «Ez izan beldurrik!». Zuhaitz artetik kamioi bat ateratzen zela ikusi genuen, eta kamioian Gudaroste Gorriko soldaduak, kolkhoseko nekazariak. Basoko partisoanok ziren. Kamioitik lurrera jauzi egin zuten denek, eta haur txikiak zituzten emakumeak igoarazi zituzten kamioira. Eta gidariaren kabina umez bete zuten. Eta guri esaten ziguten: «Hazi samarrak zarete, baina oraindak ez duzue haurrik; beraz, itxaron zenezakete pixka bat». Eta gidariari keinu egiten zioten: «Segi!».

Bi egunez bizi izan ginen haiekin basoan. Gero, ikurrin gorria zuen tren bat gelditu, hartara igoarazi eta esan ziguten: «Bidaia ona izan!».

*Dusia Semionova, 14 urte, Kiev-ekoa.*

42-III-13ean jasoa, 9. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Zerbitzurik interesgarriena**

Soldaduek ezagutzen ninduten. Gure umezurtz-etxetik urrutira gabe kokatuta zeuden, zaldiak zaintzen ziren klinika batean. Berrehun metro ibili, eta haiek. Bazen han Petia izeneko bat, soldadu gaztea. Ezagutza egin genuen. Lehenengo txantxetan galdetu zidan: «Gudaroste Gorrian sartu nahi duk?». «Bai». «Ederki –esan zidan–, joan hadi komisarioarengana, hark hartuko hau beharbada. Ez hauela hartzen? hemen dituk bi obus-azal; kotsola hadi horrekin. Egin kanoi bat, alemanak izutuko dituk...».

Geltokian alemanek tren militarra bonbardatu zutenean nabarmendu ninduten soldaduek. Gure kolkhoseko mutilek bagoietara igo eta kartutxo-kaxak sutatik arrastaka atera zituzten. Soldaduak igotzen ziren eta mutilak haien atzetik. Kaxak sutan zeuden, bagoiak geldi, beldurra ematen zuen; baina gu igo egiten ginen. Guregandik ez urruti jaurtigai bat erori zen; hura lehertzearekin, haren bafadak ingurura bota ninduen. Handik atera nintzenean, gasolioz eta bolboraz estalita neukan alkandora guztia. Baina, hala ere, kartutxoak atera nituen trenaren azpitik, hegazkinentzakoak. Kalibre handikoak.

Batailoiko komandantearengana joan nintzen. Eta esan nion: «Boluntario sartu nahi dut, esploratzaile». «Gaztetxoa zara, ez duzu zertan sarturik, bizi egin behar duzu oraindik». Baina saiatu eta saiatu egin nintzen, berak esandako guzti-guztia egingo nuela esaten

nion. Eta dagoeneko ezagutzen ninduten soldaduak nire alde atera ziren. «Har ezazu!». Eta hartu egin ninduen. «Zatoz bihar goizean», esan zidan.

Gaua umezurtz-etxean igaro nuen eta goizean administratzaileari esan nion: «Armada Gorrira boluntario noa eta manta bat daramat». Eta soldaduekin batera egoten hasi nintzen; haiekin lo egiten eta jaten nuen, eta botak eta dena eman zizkidaten...

Aita posta-igorlea nuen, eta ama Katia. Aita Finlandiako Neguko Gerran hil zuten, eta ama Aste Berdean hil zen.

Begiratu egutegian: hemendik hona ibili nintzen esploratzaile; irailaren 18tik abenduaren 3ra. Hainbat herritara joan nintzen. Etsaiak okupatutako lurraldera. Orain begiratu hemen. Ikusi, estatu nagusiko buruzagiak zer idatzi zuen: «Ondo burutu zuen bere lana». Hori esan zuen niri buruz, esploraziora joan nintzen garaiaz. Ez naiz harroa, baina hori idatzi zuenez, lana ondo egin nuen seinale.

Behin, gure unitatea Vorozhba-n kokatzera bidali zutenean, Koxhara-ko sovkhosera bidali ninduen komandanteak. Komandantearen agindua zen jakiteko ea zenbat moto zituzten, ea tankerik bazuten eta ea blindaturik bazuten. Eta akordio bat: luzaroan itzultzen ez banintzen, herri hartara kanoiz tiro egiten hasiko ziren gureak, suaren babesean alde egin ahal izan nezan.

Eta hor noa ni sorotan zehar. Gari-meta batera iristen naiz, begiratzen dut, hantxe daude alemanak. Batek oihi egiten dit: «Halt!» («geldi!» esan nahi du). Beregana joan nintzen. «Nora?» galdetzen dit. «Amarengana» esaten diot. «Amarengana, amarengana» esan zuen marmarka, haserre, baina joaten utzi zidan. Metaren ondoan kanoi bat zegoen. Ohartuta nengoen. Eskuin aldean, etxaldetik gertu, beste meta bat eta be-

rriro dozena erdi bat aleman han kokatuta, eta alboan kanoi bat. «Nora hoa, mutil?». «Amarengana noa».

Herrixkara noa, begiratzen dut: urmael bat. Urmaelean bi aleman txalupa batean, errebolberrez ahateei eta antzarei tiroka. Eta urertzean emakume bat eserita, negarrez: «Bizkor alde egin behar dugu, bestela lumatzera behartuko gaituzte, zital horiek». Eta ondoan gizon bat. «Hoa etxera, hil ezak txahala –esaten zidan–. Bestela kendu egingo diate. Txahala bazkatzan ari haiz eta beldur haiz. Berandu iritsi daitezela! Ahate eta antzara horiek nireak baitira!». Aurrera jarraitu nuen. Non ikusten dudana: baratzean hiru tanke kamuflatuta, landare azpian ezkutatuta. Eta handik gertu teilatu gorriko etxe bat eta, ate ondoan, guardiak. Haurrek esan zidaten: «Alemanen kuartel nagusia da». Eta gero jaurtigailuz kargatutako auto bat. Bira eta bira egin nuen; etxerantz abiatu behar nuen. Auto hori aierera bidali behar zen lehenbailehen.

Bide beretik itzuli nintzen. Ez, ezin zen pasa. Alemanek atzera itzularazi ninduten, metatik gertu zeudenek. «Hara joan behar dut», adierazten nien, baina atzera bultzatzen ninduten. Atzera egin nuen, zanga batera jauzi egin nuen; ez, pentsatu nuen, zangatik ahaleginduko naiz. Zangatik noa; goiko aldean lubaki bat egina dagoela ikusten dut, eta lubakitik aleman bat azaltzen dela. Metrailagailua eta zurezko kirtendun granadak ditu. Arrastaka igaro nintzen gertutik; ez zen ohartu. Eta, bat-batean, goialdean hiru aleman oinez, txistuka. Oihu egin zidaten. Gainaldean zegoenak oihuak entzun, lubakitik irten eta beregana joateko hots egin zidan. Ez zegoen zer eginik, beregana hurbildu nintzen. Usaindu nuen, alemana edanda zegoen. Inguruko aire guztiak alkohol usaina zuen. Ez da zutik egoteko gauza, balantza egiten du. Poltsikoan

jotzen nau eta eseri egiten da. Ergela! Zigarro-kaxa txikitxo bat, burdinazkoa, atera nuen, zigarroekin; beste soldaduei bezala, niri ere zigarroak ematen zizkidaten. Zigarro-kasa hartu, zigarro bat atera eta ahoan iltzatzen dit. Eta pospoloa pizten du. Nire zigarroak pozoituta ote zeuden pentsatuko zuen, nonbait. Erretzen nuela ikusi zuen; nire zigarro-kaxatik beste zigarro bat piztu zuen. Eta beste poltsikora destatu zuen. Beste poltsikoan dirua nuen; errublokoak, hiru errublokoak, bostekoak. Abiatu nintzenean hamarreko bat ere bannen poltsiko hartan, baina beste poltsiko batera aldatu nuen bidean, galtzetako poltsiko txiki batera, hamarrekoan Lenin agertzen baitzen eta ez nuen nahi beren begi zikinez Lenin ikus zezaten... Ongi atera zen. Alemanak hirukoak eta bostekoak hartu zituen, baina nire Lenina ez.

Galdetzen hasi zitzaidan: «Nongoa haiz?». Gezurra esan nion amaren bila nenbilela, burua nahastu zitzaiola, erotuta zegoela, ez dut zuekin bizi nahi, esaten du, alemanekin bizi nahi dut, eta esan zidatela hara joan zela eta atzera itzuli zela, eta aita gaixo zegoela etxean. Entzun zuen, entzun zuen; ez dakit ulertu zuen, ez dakit, eta herrirantz bultzatu ninduen berriro. Hara joan behar nuela adierazi nion, eta berak «Han boltxebikeak» eta herrirantz bultzatzen ninduen.

Zangan zehar itzultzen naiz, burua biratzen dut. Zer egin orain? Ez dut ulertzen. Baina gure artilleriak ikusten du luzaro falta naizela, eta herria bombardatzen hasten da. Alemanak zalapartaka hasi ziren, eta nik ihesari eman nion. Haiek, ordea, zalapartaka ari ziren arren, ni atzera itzularazteko moldatzen ziren. Bost aldiz bidali ninduten atzera. Baina ni ere tematia. Zangatik abiatu nintzen berriro. Eta nire alemanak lo hartu duela ikusten dut. Isil-isilik haren ondotik

herrestatzen naiz, bidera itzuli eta ekinahal guztian lasterka abiatzen naiz. Bat-batean, metrailagailu batez tiroka egin zidaten nonbaitetik. Eta ihes egiten dut. Niri ari zaizkit tiroka. Ez naiz itzultzen, ihes egiten dut. Eta bat-batean entzuten dut; motoa atzetik biratzen. Niretzat da. Errepidean bezalaxe biratzen da zekale segatuaren gainean. Ni lasterka. Hura hurbilago. Zekale ebakia bukatzen ari dela ikusten dut, segatu gabekoa hasten da. Hara noa. Ez noa erabat zutik, makurtuta baizik. Eta motoa atzean geratu da, entzuten dut. Segatu gabekoan ezin du, zekalea gurpilean trabatzen zaio.

Etxera iritsi nintzenean, komandanteak galde-tu zidan: «Korri egin duzu? Tiroka egin dizute?». «Ja». – «Ederki, parte eman».

Nire partearen arabera, gureek estatu nagusia bonbardatu zuten. Bateriaren bidez. Lehenengo aldiz eraso genuenean, huts egin genuen; bigarrean ez-tanda bat entzun genuen, gero su handi bat ikusi, eta kea desagertu zenean, ezer ez zen geratzen zutik: ez teilatu gorria, ez etxea. Dena lau.

Gustatu egiten zitzaidan esploratzera joatea. Esploratzaile, horixe da zerbitzurik interesgarriena. Ez duzu ezer, bi begi besterik ez, eta etsaiari kalte gehiago eragin diezaiokezu bi bonbak baino. Baina behin negar egitea ere suertatu zitzaidan, esploratzaileei metraile-tarik ez zegokielako, granadatxo bat baizik... Kaltxenki herrira bidali ninduten, etsaiek han tankerik bazuten begiratzera. Joan nintzen, begiratu nuen: aleman gutxiegi zegoen kalean. Orduan atze aldean barrenerago sartu nintzen, herria igarota, han zer zuten ikusteko. Soroetara atera nintzen eta non ikusten dudana: gure bi teniente, alkandora hutsetan, uhalik, botarik gabe, soroaren erdian geldirik, eskuak eta hankak sokaz lotuta. Inguruan, alemanak. Ofiziala zerbait irakurtzen

ari zen eta soldaduak, isilik. Ofiziala teniente baten-gana ondoratu eta errusieraz galdetu zion: «Zer esan nahi duzu hil baino lehen?». Eta hitz egin ordez tu egin zion. Ofizialak garbitu eta oihu egin zuen. Orduan biak lurrean etzan zituzten, upeltxo beltz batzuk ekarri zituzten, biribil batzuk, badakizu, gasolinaz beteta, eta gainera husten hasi ziren. Eta su eman zioten. Ez nintzen gauza izan begiratzeko, alde egin nuen. Ez nuen ikusi nola erretzen ziren, sutatik nola garrasi egiten zuten entzun besterik ez: «Suntsitu egingo zaituztegu, madarikatuak!».

Alde egin nuen. Luzaro entzun nuen nola erretzen ziren eta nola garrasi egiten zuten.

*Boria Voronin, 13 urte, Bilopillia-koa.*

42-II-27an jaso, Berrogeialdiko umezurtzetxean, Taxkenten.

### **Ostiralean**

Ostirala zen. Lehenago, amak arraina prestatu ohi zuen beti egun horretan, piperrarekin, tipularekin eta azenarioarekin.

Alemanak etorri zirenetik, utzi egin genion erosle-ilaran jartzera joateari: alemanek lepotik heltzen zieten juduei eta poloniarrek xaxatzen zituzten.

Baina poloniar emakume batek (gure etxaldea zaintzen eta ureztatzen zuen, zaintzailea zen) hala ere ogia lortzen zigun.

Poloniar jatorra!

Ostiral hartan kaleko zaratak esnatu gintuen. Henik-ek oihu egin zuen: «Sua!».

Amak beldurra zuen irteteko, eta Henik eta biok jaiki eta korrika joan ginen.

Gure etxe ondoan merkatu bat dago. Jende pila bat zegoen han. Erdian paldo moduko batzuk ikusi ni-



tuen, eta haietan hiru pertsona lepotik zintzilik. Eta ondoan hiru aleman ofizial zeuden, algara batean barez.

Rosa Khainskaia, 11 urte.

42-I-21ean jasoa, 31. umezurtz-etxean, Taxkenten.

## Kea

Aita Gudaroste Gorrira joan zen. Hura agurtu besterik ez, eta errumaniarrak etorri ziren herrira. Alemanek ez bezalako jantziak zituzten, baina faxistak ziren hala ere. Bi errumaniar gure etxartean sartu eta galdetu zuten: «Hemen bada errusiarrik?», eta guk erantzun genien: «Ez». Ondoren, herriko herritar gutxie etxetik irteteko agindu zieten. Oihuka esaten zuten: «Ea, irten, irten!». Etxetik irten ginen, baina ibaiaren ondoko belar ondutan ezkutatu ginen gordeka-gordeka; beste batzuk, ezkutatu ez zirenak, soroetarantz joan ziren lasterka; oi!, haiek badoaz, eta haien atzetik hamalau errumaniar fusilekin. Soro batean bildu zituzten eta gero bereizi egin zituzten: emakumeak eta haurrak alde batean, gizonak bestean eta emakume gazteak hirugarrenean. Hainbestearino torturatu zituzten gizonak, hainbestearino, non gero ikusi genuen aurpegia zaurituta odoletan zutela guztiek; eta emakumeak ez zituzten hainbestearino torturatu, baina torturatu egin zituzten haiek ere, eta etxera ogi bila joateko eskatu zutenean, ez zieten utzi. Belarretan etzanda geunden eta beldur handia genuen, beldurraren beldurrez jateko gogoia ere joanda. Gauean errumaniar zentinelek ihes egin zuten; bat-batean gure autoak, gure tankeak ikusi genituen, eta sobietarrek errumaniarrak atxilotu zituzten eta jende guztia aske utzi zuten. Jendea penatsatu ere ezinezko pozez itzuli zen zein bere etxera.

Errumaniarrena gertatu eta handik gutxira ama-  
rrengandik galdu egin nintzen.

Faxistak bonbardatzen hasi zirenean, gure Le-  
va-ko herritik Kerzhenitsa-ra eta handik aurrera,  
errumaniarrena baino pixka bat geroxeago, Bucha-  
ra joan ginen. Baina bizitzen hasi besterik ez genuen  
egin han; faxisten hegazkinak etorri eta bonbak bota  
zituzten. Amak anaia txikia besoetan hartu eta eskutik  
arrastaka eramanez ninduen, lasterka. Eta bat-batean,  
amaren eskua askatu egin zitzaidan. Eskuaz heltzen  
saiatu nintzen, begiez begiratzen nuen, eta ez nuen  
ezer atxikitzen: kea besterik ez. Inguruan kea, eta ama-  
rik ez. Ondoren kea garbitzen hasi zen, etxeak, beste  
pertsona batzuk, saltokiak ikusten hasi nintzen; baina  
amarik ez. Errepidean gelditu nintzen, negarrez.

Eta orduan gureak atzera egiten hasi ziren.  
Autoak, gurdiak, tankeak poliki-poliki zihoazen errepi-  
dean. Zutitu eta negarrez hasi nintzen. Soldadu batek  
esan zidan: «Zergatik ari zara negarrez, neska?». «Ama  
galdu dut». «Zatoz, bada, gurekin; Errusiara eramango  
zaitugu eta umezurtz-etxe batean utziko zaitugu. Han  
ederki egongo zara». «Baina ama ezin dut hemen utzi,  
errumaniarrek harrapatu eta torturatu egingo dute.  
Ikusi dut nola torturatzen duten errumaniarrek».

Baina ama ez zegoen inon, eta gurdi hartara igo  
eta joan egin nintzen. Beste emakume bat ere erretira-  
tu zen haiekin. Soldaduei janaria prestatzen zien, eta  
nik lagundu egiten nion. Soldatu eta teniente guztiak  
adeitsuak ziren gurekin, opariak egiten zizkidaten eta  
errukia zidaten. Teniente batek, Ivanov tenienteak,  
alabatzat hartu ninduen. Bere etxera bidali nahi nin-  
duen, bere amarengana. Aita deitzen nion. Eta beste  
batek ere –sargentua, osetiarrak– ongi zaintzen ninduen,

eta eztabaidak izaten zituzten –sarjentuak eta aitak– nola zaindu behar ninduten hobeto.

Kherson eskualdean bereizi nintzen haiengandik. Aurrera jarraitu zuten, eta ez ninduten eraman. Agindu bat iritsi zen buruzagitzatik: entregatzeko neska, ni, herriko sobietari, eta handik umezurtz-etxera. Agindua bete egin behar da, bestela ez nintzatekeen haiengandik bereiziko.

*Liuba Vatnik, 13 urte, Leba hirikoa (Besarabia).*

42-II-13an jasoa, 9. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Maite dut**

Ama eta biok trenez iritsi ginen Dnepropetrovsk-era. Gauean alemanek gure trenea bonbardatu zuten. Denek jauzi egin zuten nora edo hara, eta hantxe galdu nuen ama. Ez dakit non sartu zen ilunpean. Hirira joan nintzen bila. Han andre batek hartu ninduen berekin bizitzeko. Gauez harekin egoten nintzen, eta egunez amaren bila ateratzen nintzen. Poliziari galdetzen nion: ez al duzu topo egin halako eta halako ama batekin? Zuzen begiratu eta esaten zidan: ez dut ikusi. Alemanak hurbiltzen ari ziren. Denei esaten zieten alde egiteko, baina nik ez nuen alde egin. Gure konboia zegoen tren-geltokira joaten nintzen eta denei aurpegira begiratzen nien biratzen ziren arte, oholen azpian ba ote da ama hilik?

Eta hala, egun batez, alemanak sartu ziren hirian. Hemen eraikina sutan, eta haiek lasterka igarotzen dira pistolarekin. Bat ez doa lasterka, oinez dabil espaloitik, pasieran balebil bezala. Ez dakit ofiziala ala soldadua den; pasieran, horixe. Eta hantxe mutiko bat dago, begira. Ofizialak errusieraz galdetzen dio: «Stalin maite duzu?». Mutil polita, huraxe, botaz eta jaka batez jantzita. «Maite dut» erantzuten dio. Alemanak errebolberra atera, eskuz aldatu eta esaten dio: «Edo ez

duzu maite?». Eta mutilak erantzun: «Ez, maite dut». Begiak urdinak zituen.

Orduan ofizialak tiro egin zion, eta nik lasterka alde egin nuen.

*Vasia Brindes, 12 urte, Lachowce-ekoa (Kamianets-Podilski eskualdea).*

42-III-22an jasoa, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Urretxindorrak**

Uzin-eko gure herri gainean ehiza-hegazkin batek aleman hegazkin bat bota zuen. Egunez zen. Kolkhoseko nekazariak beren gurdiekin bildu ziren orduan, trintxeretara joateko. Eta esplorazioko beren hiru hegazkin azaldu ziren. Jendetzari metrailagailuz erasotzen hasi ziren, asko zauritu zituzten, eta agure bat hil zuten. Ez zen oso zaharra ere, berrogeiren bat urte zituen...

Orduan, sobietar ehiza-hegazkin bat azaldu zen eta aleman hegazkin bat bota zuen; besteak biratu egin ziren. Hegazkina gure errekatik hogeiren bat metrora erori zen, baratzetan. Erretzen hasi zen, eskuin hegala, gasolina deposituak egon ohi direnak, su hartu zuen. Irrati-operadoreak goizegi egin zuen salto, ez zen zutik geratu, erori egin zen eta hegazkinaren muturrak hankak estali zizkion. Beste aleman bat –kaboazen– lur hartu bezain laster, beren argazki guztiak, plano guztiak hartu eta eskua jaso zuen; sutara bota nahi zituen. Baina ordurako iritsiak ziren kolkhoseko langileak. Emakume batek behatzetan jo zuen bere jorraiaz; erremolatxa jorratzeko erabiltzen den aitzurtxo hori, badakizu; kaboak paperei jaregin eta bera ere erori egin zen.

Irrati-operadorea hegazkinaren azpian zegoen eta errusiera garbian eskatu zuen: «Moztu ieazkida-

zue hankak, moztu hankak, mesedez, hankak, baina salbatu bizia!».

Inor ez zegoen ados, jakina, hari hankak mozteko. Hegazkinaren azpitik kanpora atera nahi genuen. Gurdi-pertikez hegazkina jaso genuen. Eta alemana tiraka ateratzen saiatu ginen. Baina ezin zen inola ere atera. Orduan gainerako guztiak hegazkinaren isatsean eseri ginen; hegazkina altxatu zen eta alemana handik askatu genuen. Eta alemanak hankarik ez bazuen ere, eskuak lotu genizkion.

Erizain bat etorri zen, alemanen zauriak lotu zituen, gurdi batera jaso zituzten eta herriko sobietera eraman. Herriko sobieteko buruak jaten emateko agindu zuen. Baina ez ziren lurrera jaitsi, eta gurdi gainean eman zieten jaten.

Jende pila bat bildu zen inguruan. Bazen gerran han preso egonda austriarrez bazekien pertsona bat. Horrela, bada, galdetu zien: «Gure ukrainar ogia ona da?». Eta andre xahar batek galdetu zien: «Hortaz, hegan egiten jarraituko duzu?».

Horren ondoren, gure herria bakean bizi izan zen lau egunez. Edo ez hain bakean: alemanek bomba bat bota zuten behin behitalde batean. Baina hori kontuan hartu beharrik ez dago. Eta gero geroz eta gerturago hurbiltzen hasi ziren. Herriko sobietak emakumeak eta haurrak presaz ebakuatu zituen herritik. Uzta-makinak, eultzi-makinak, ereiteko makinak, denak leku batean bildu, kerosenoz busti eta su eman zieten. Abere handiena eraman egin zuten, eta ahulena hil eta okela herritarren artean banatu zen.

Gauean, gure unitateek borrokarik egin gabe hustu zuten herria. Gure unitateek atzera egin bezain laster, gizon askok partisanoetara alde egin zuten, hamabi kilometrora, Sukholis-eko basora. Eta mutil

gazteak haiekin joan ziren. Nik ere haiekin alde egingo nukeen, amonarengatik izan ez balitz. Hirurogeita hemezortzi urte zituen; nora joango zen, hain zaharra izanda?

Gau hartan inork ez zuen lorik egin. Surik gabe egon ziren denak beren etxoletan. Eta gauean sartu ziren.

Segituan postuak jarri zituzten herriaren inguruan. Herrian sartzen uzten zuten, baina irteten ez. Denak zebiltzan kaskoz eta itxitura automatikoekiko botaz jantzita: aurreko itxitura eta albokoak. Moto asko eta hamasei tanketa zituzten... Eta goizean SS tropa bereziak sartu ziren. Kaskoetan, ikurrinetan, motoetan, bi letra alde guztietan: SS. Eta jendea herriko sobietera joateko agindua eman zuten segituan. Jendea pixkanaka bildu zen. Aleman zalditeriakoeke eraman zituzten. Aleman ofizial bat oholtzara igo zen, eta gure herriko buruzagi izateko nor izendatu hitz egiten hasi ziren beren artean. Beraiekin batera ekarritako errusiar bat izendatu zuten. Orduan ofizial hark errusiera katramilatsu batean agindu zuen komunistak ziren guztiak ateratzeko aurrera, eta ateratzeko aurrera kolhoseko burua, eta ondoko lantegiko langile guztiak eta irakasle guztiak. Eta inor ez zen atera, jakina. Orduan agindua irakurri zuen: gaueko zortziak baino lehen aipatutakoetatik azaltzen ez zena, harapatzen bazuten, fusilatu egingo zutela, eta zortziak igarota argirik pizten zuena, hura ere fusilatu egingo zutela, eta herritik ateratzen zena, fusilatu, eta kalera ateratzen zena, hura ere fusilatu. Edozergatik fusilatu gintzaketen denak.

Goizean urkabe bat agertu zen kalean. Dagoeneko bi zeuden urkabetik zintzilik: herriko kolhoseko lehendakaria eta gure eskolako fisika eta kimikako ira-

kaslea. Hiru egunez tirokatzen eta urkatzen aritu ziren SSak. Kooperatibaren aurrez aurre bazen etxe bat; haren hormaren kontra fusilatzen zuten eta haren aurrean urkatzen.

Hirugarren gauean aleman kuartel nagusiak alde egin zuen. Partisanoak etorri ziren. Soloviovka herrikoak ziren. Ospetsu bihurtuak ziren urretxindor horiek<sup>4</sup> hemezortzian, alemanek Ukraina okupatu zutenean. Eskolan kontatu ziguten haiena, historiako ikasgaietan.

Boria Ixenko, 16 urte, Uzinekoa (Ukraina, Belaita Tserkov-etik hurbil).

42-III-20ean jasoa, 17. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Buruzagiak**

Alemanek preso hartu ninduten. Hamabi egunez egon nintzen preso. Eta gero ihes egin nuen, Vovkarekin eta Mixkarekin. Inori ez zaio gustatzen alemanekin geratzea, ezta?

Defentsa-lanetan aritzea eskatu eta lortu nuela-ko hartu ninduten preso. Gure kolkhosean, gerra hasi zenean, defentsa-lanetara bidali zituzten asko eta asko: lubakiak eta behar zena egitera. Eta haurrak, amekin batera ebakatu zituzten. Baina nik ez nuen joan nahi, nahiago nuen lubakiak egitea. Eta erregutu egin nuen.

Kolkhosean auto bat eman ziguten, palak hartan sartu eta abiatu egin ginen.

Auto batean gindoazen, burua jasota, gure hegazkin guztiak zenbatzen genituen. «Ederki –esaten genuen–, oraintxe emango diete egurra alemanei».

Lanean militarrek elkartu zitzaizkigun eta zenbat sakondu behar zen erakutsi ziguten. Gora bota behar zen palak, baina buztin-lurra zen eta pala astuna. Gure kuota bete genuen eta orduan militarrek esan zigun:

---

4 Соловьёвска (Solovievka), Ukrainako hiria. соловьи (urretxindor).

«Lan arinagoa emango dizuegu». Eta tiro egiteko lekuak egiten erakutsi zigun. Nik goroldioz estaltzen nituen, kamuflatu egiten nituen eta nire kideek metrailagailuentzako leihoak egiten zituzten. Indartsua eta trebea naiz edozein lanetarako, baina eskolan ez nintzen oso ikasle ona. Ergela, noski. Aitak errieta egiten zidan, amak errieta egiten zidan, baina gehiago gustatzen zitzaidan taldean zaldiz ibiltzea, belarra garraiatzea, zekalea jotzea, eskulana; hori gustatzen zitzaidan.

Gure kolkhosa –ikusitako bazenu– aberatsa zen; geure dinamoia eta geure errota genuen. Eta jakitera zer gehiago! Horrelako etxalde batean jardutea pozgarria da, ezta?

Bazkaltzeko ordua zen dagoeneko. Eguzkiak erre egiten zuen. Bat-batean hegazkin baten burrundara entzun genuen, izan zitekeen gurea, edo ez izan gurea. Biraka-biraka aritu zen, eta Luga ibairantz jo zuen.

Dagoeneko ahaztuta genuen. Eta bazkaltzen genuen lantegirantz abiatu ginen. Hurbiltzen gara eta zer ikusiko; horrelakoak gertatzen dira inguruan, hara! Alemanak dabilzala. Alemanak dabilza gure lurretan. Inbasio bat zen. Alemanak alde guztietan, eta bat ere ez oinez, denak autoz, motoz. Etxeak, itxiturak, ateak, denak botatzen dituzte. Autoa eraikinaren ondoan aparkatu eta arbel-xaflaz kamuflatzen dute. Inguruan tiroketa hasi zen. Alemanek metrailagailuz mozten dituzte kaleak. Fabrikako langileak kanpandorrea kokatu eta handik erasotzen diete, eta alemanek kanpandorreak tiro egiten diete. Kanpandorrea erretzen ari da dagoeneko. Emakumeek barazkiak dauzkaten etxoletan ezkutatzera eramaten dituzte haurrak. Alemanak lantegian zehar dabilza, dena lurrera botaz, joka, dena mugitzen, zerbaiten bila dabilza. Beste batzuek dendatik bodka lapurtzen dute, beste batzuek



ogia ostikoz botatzen dute, beste batzuek postetxean sortaka erretzen dute dirua. Zertzuk egin zituzten! Komunikazioa eten zuten, hari guztiak zutoinetatik zintzilika zeuden. Bat dagoeneko edanda dago, salte-giko leihora igo da, gizona da, kalera erori da atzeraka eta, bertan etzanda, lo dago. Bat ondoratu eta galdetzen dit –errusieraz galdetzen dit, baina bai gaizki–: «Lenin-grad urruti?». –«Hirurehun kilometro». –«Eta Mosku?» –«Mila». –«Beraz, bihar Leningraden, eta biharamun-biharamun-biharamunean Moskun. Errusia kaput egingo dugu». Eztarria seinalatu eta eskuak bizkarrean jarri zituen; errusiarrak horrelaxe eramango zituztela esan nahi zuen horrek... Sugeak halakoak!

Etxera joatea erabaki genuen, gure herrira. Eta han dagoeneko alemanak, denak txukun, etxean bezalaxe kokatuta, metrailagailuak alde guztietara apuntatzen. Begirariak esaten digu: «Horra ezin duzu, hara ezin duzu, bestera ezin duzu; eta, bestela, begira!» – eta pistola sabelaren kontra estutzen du.

Herrira itzuli ginen berriro oinez, eta han alemanak lasterka zebiltzan, jende guztia fabrikara eramaten. Makinen inguruan zebiltzan, paper-makinei beren tresnekin argazkiak eginez. Jende-pila batera eramán gintuzten. Eta ofizial bat atera zen; alemanekin dago baina errusiarra da... Ahaztu egin dut nola deitzen zen... Errusiako Guardia Zurikoa zen. Eta esaten digu: «Sobietar Batasuneko herritarrak! Atzegoardiara bidaliko zaituztegu; han errazago biziko zarete». Eta plan bat egiten hasi ziren. Beraientzat lan egin genezan tentatzen gintuen. Gu isilik. Soldaduek inguratu eta eramán egin gintuzten. Gurekin bazen eskulangile bat, lanbide eskolako ikasle bat. Orduan «Lan. Es.»<sup>5</sup> jartzen zuen gerrikoa kendu zioten, begiratu, begiratu zuten,

---

5 Lanbide Eskola.

berriro fabrikara eraman zuten eta bi tiro entzun ziren. Eta ez genuen berriro ikusi. Hori bai lastima! Ez zen gure herrikoa, baina gurekin zebilen. Gizatxarrak halakoak, pentsatzen dute, uniformeak badu, zer da? Soldadua. Baina hamabost urte inguru zituen.

Beren motoetako soldadu edo gradudun bat jarri ziguten gidari; alboetan soldaduak geneuzkan metrailadoreekin. Eta presakatu egin gintuzten. Hautsa, haur gosetuak negarrez, emakumeak ere negarrez, haurrak daramatzatela. Eta noranahi goazela, alemanak lasterka ateratzen dira basotik beren aparailuekin eta argazkiak egiten dizkigute. Soldaduak alboratu egiten dira, eta argazkietan agertzen da geu goazela geure kabuz alemanengana preso har gaitzaten. Maltzurak!

Oso maltzurak dira, ofizial hau batez ere. Begira, fabrikara iritsi ere ozta-ozta egin dira, begiratu dut, eta ofizial bat bera ere ez dago, denak soldadu. Sorbaldako uhaletan ez zintarik, ez izarrik, ezer ez. Gero, ilundu ondoren, begiratzen dut: ofizialez beteta. Uhalak barrukoz kanpora aldatzen dituzte, beldurra dute: bertan komunistarik, soldadurik edo partisanorik geratzen bada eta ofizialik ikusten badute, tiro egingo diote. Zeren ez baititugu soldaduak garaitu nahi lehenengo, haien buruzagiak baino, ezta? Buruzagia hiltzea beharrezkoagoa da, soldadua baino. Buruzagiak du erru guztia, ezta? Hortxe daude, koldarrak, eta kamuflatu egiten dira.

Bidean ez ziguten ezer eman jateko, eta ura zingiratxo batetik edan genuen. Basoz ibili ginen denbora gutzian, eta Lozhgolovora iritsi ginen.

Han ez zen inor geratzen, denek alde egin zuten eta abereak ere ebakatu egin zituzten. Hara iritsi ginenean, hutsik zeuden isbetan banatu eta giltzapetu gintuzten ofizialek.

Emakume zahar-zahar bat baizik ez zen geratzen, eta agure erlezain bat. Nola asmatzen zuen, nork jakin? Dena asmatzen zuen. Eta galdetu nion ea etxean egongo nintzen, eta noiz? Iragarri zidan baietz, egongo nintzela, baina denbora asko igaro ondoren.

Han geratu ginen bizitzen. Eta ez ginen bizi izan, goseak puztu baizik. Alemanek ez ziguten ezer ematen. Beraiek ere gose ziren, otsoak bezala. Kolkhoseko langileek dena eraman zuten, den-dena garbitu zuten. Aza-hostoak jaten genituen, tipulak murtxikatzen genituen. Goizean jaikitzen zara; burua biraka dabilkizu, mozkortuta bezala. Alemanak baratzer sartuko dira, makila batez patatak aterako dituzte; txikiak, behatzez; eta egosiko dituzte. Ondoren azenarioak xehe-xehe birrindu eta zopa egingo dute berentzat.

Behin zopa utzi ziguten. Begiratu, eta: zer da hori? galdara bat urez bete eta denei deitu zieten. Amek haurrak eraman zituzten; hain zuzen, zenbat denbora baitzeramaten jan gabe! Eta haiek, argazkiak ateratzen. Honela elikatzen ditugu guk Sobiet Batasuneko biztanleak, esaten zuten. Gezurtiak, zerriak!

Handik gertu erlategi bat zuen agureak. Eta han ezia. Alemanak hara joan, eta hasi dira ezia biltzen. Eta erleak jo eta su alemanak ziztatzen. Alemanek aberaska atera, lasterka alde egin eta tarraska eramaten zuten belarretan. Eta erleek zizta eta zizta. Bat, eskerrak, hainbesteraino ziztatu zuten non ozta-ozta ikusten baitziztaion begiaren zuria. Erleak seinalatu eta esaten zuen: «Euliak, euliak!». Ez dut uste euliak zirenik!

Haien ofizialak gaiztoak ziren edo, hobeto esateko, basapiztiak. Soldaduak, ehun aldiz adeitsuagoak. Soldadu batek -fabrikan zaintzen gintuenak- esan zigun beldurra zietela ofizialei, eta bestela errenditu

gingo zirela denak. Pozik errendituko ziren, baina buruzagiek eragozten zieten. Zigarroak eskaintzen zizkigun, hain adeitsua zen soldadu hura... Beren ofizialek ez ziruditen pertsonak zirenik ere. Behin badoa neskatxo bat, eta ondoren ni. Ofiziala bidearen erdian dago, begira. Neskak ez zion ezer egin, ez bultzatu, ez zion ezer esan; hain txikia zen non hitz bat esateko ere ez baitzen gauza; eta ofizialak, neska ondotik igaro zitzaionean, ukalondoaz zangara bultzatu zuen. Eta bidearen erdian geratzen da, piztia gaiztoa. Ni banoa, pentsatzen dut: ez nauk kikilduko hire aurrean, berdin zioz zer haizen. Banoa. Lepo-zapitik heltzen dit, eta nola birarazten nauen! Hegan egin nuen.

Bazuten han soldadu bat, okerren bat egina. Ez nekien ezer. Banoa, begiratzen dut: soldadua lurrean arrastaka. Eta bizkarrez, sabel gainean, alde guztietan narraska dabil, beregain biraka... Horrelako zigorrak dauzkate buruan. Lepotik zintzilik metrailadore bat duela dabil arrastaka. Ofizial bat gainean gelditzen zaio eta madarikatu egiten du.

Horregatik soldaduek gorroto diete ofizial horiei! Badakizue zer egiten duten? Haien soldatueta batek kontatu zidan egia. Gurekin, errusiarrekin, borrokan ari direnean, jo egiten dituzte ofizialak, eta gero errusiarrei botatzen diete errua, haiek zigortu ez ditzaten. Zer besterik egin dezakete, ezta?

Aurki Lituaniara lanera bidaliko gintuztela esaten hasi zitzaizkigun alemanak. Biztanle guztiak ebakuatu zituztela handik, eta horrenbestez ez dagoela inor soroetan lan egiteko.

Beraz, bai. Haien ordeztan lan egingo dugu. Ez dugu lan egingo! Ezta?

Denek pentsatzen dugu nola alde egin handik. Eta egokiera ona aurkitu genuen: beraien jaian. Denak

eserita daude, bodka edanez, kartetara jolasten, eta herriaren beste muturrean zalduneriakoak zaldientzat belarra mozten ari dira.

Han bazen estalpe bat. Eta haren atzean zekale-soro handi bat. Inguruan begiratu genuen, ea norbaitek begiratzen zuen edo norbait zegoen, eta zekale artean sartu ginen arrastaka. Aspaldi ez zuen euririk egin, lurra lehorra zegoen, zokorrez beteta. Odoltzeraino mailatu nituen belaunak. Basoraino iritsi eta zutitu egin ginen. Banan-banako ilaran gindoazen. Mixka, lehenengoa -zakur-martxan- eta gu haren atzetik, oin-puntetan, zarata gehiegi ez egiteko. Pixka bat aurreratu genuen, eta istingadi bat topatu genuen, handia, luze-luzea, hamabost bat bersta bai luze. Galtzak jaso eta jarraitu egin genuen. Istingadian masustak eta ahabiak hazten dira, gozoak, jan genituen, baina eltxo-lainoek ziztatu eta ziztatu egiten gintuzten.

Iparrorratzaz genbiltzan; mutil batek, basozain baten semeak, eman zigun. Eta, garrantzitsuena, tiro-hotsen aldera jo genuen. Urrutitik armen tiro-hotsak entzuten genituen; eta harantz jo genuen, gureak alemanak kanporatzen ari ziren.

Joan eta joan, erreka ikusi genuen. Estua, txikia, baina hain lokaztsua non Kolka trabatu baitzen ia-ia. Horregatik, erreka hura igaro genuenean, libre sentitzen hasi ginen, dagoeneko etxean bageunde bezala. Alemanengandik alde eginda, libre, aske sentitzen ginen! Laster ikusiko ditugu gureak!

Eta bat-batean estalpe bat gure aurrean. Leku lehor batean atsedean hartu nahi genuen, baina ez ginen ausartzen sartzen. Zer egingo genuen han alemanak bazeuden? Baina sartu egin ginen, hala ere. Lurrean, azalak. Bildu eta miazka erabili genituen. Eta horman landuta zutabe bat ikusi genuen eta zutabe

arkatzez idatzita gure esploratzaileak han izan direla, haien izen-deiturarekin. Eta irakurri ahala, berehala ohartu ginen, erraz: gure gudariak han nonbait ziren, gure ustez.

Atsedean hartu eta aurrera jarraitu genuen. Orain ibaiertzetik gindoazen oinez, gure esploratzaileek lehenago egin zuten bidetik. Aurrera jarraitu eta Dubovets herritik gertu bota-arrastoak ikusi genituen: edo gureenak edo alemanenak. Lurrean eseri eta pentsatzen egon ginen: joan eta alemanak badira, tiro egingo digute. Doazela pikutara, goazen, zer arraio! Eta joan ginen, eta non ikusten dugun norbait ibaiertzean mugitzen. Gure gudarien uniformeak. Baina alemanak baziren? Mutil txikiak ni nintzen, eta esan zidaten: «Tolia, zoaz herrestan, begiratu gureak ala alemanak diren. Gutxi badira, geuk erasoko diegu, bati metrailadorea kendu eta besteei tiro egingo diegu».

Herrestan abiatu nintzen. Herrestan-herrestan, eta gure gudariak ikusten ditut ibaiertzean. Gureak! Ezin zitezkeen denak mozorrotuta egon. Hain pozik nongoen non ez bainekien zer egin, eta oihu batean hots egin nien: «Mixka! Mixka! Etorri! Gure gudariak!!». Soldaduek esaten zidaten: «Ixo, Ixo!». Eta oihuka ari naiz. Erotuta.

*Tolia Petrov, 15 urte, Perelesie-koa (Leningradeko eskualdea).*

42-III-13an jasoa, 9. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Ez zen gureetakoa**

Ez, nik ez nuen alemanik ikusi. Hau da, ikusi bai, baina mozorrotuta bakarrik. Izeba eta biok Kremen-txuk-era ebakuatu gintuztenean, alemanek erasoko unitateak bota zituzten han: jausgailuak erre eta moztuz jantzita ibiltzen ziren, gure poliziak, soldaduak edo

udatiarrak balira bezala. Kanean nabilela non ikusten dudan: emakume bat zapatari batengana hurbiltzen da, oina jarri eta esaten dio: «Garbitu iezazkidazu zapatak, mesedez». Eskuilak hartu zituen, baina eskuilak alde batera utzi eta oihu egin zuen: «Zu ez zara gurea, zerrri hori! Ez zara sobietarra!». Hantxe bertan harrapatu zuten eta poliziara eraman zuten arrastaka. Nik ere lagundu nuen. Eta han alemana gizonetzkoa zela gertatu zen.

*Tolia Debisov, 12 urte, Mikhailovski-koa (Zaporizhia-ko eskualdea).*

42-III-12an jasoa, 17. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Jurka eta biok**

Gauean, hegazkin-alerta bat jo zuten. Ez zen lehenengo alerta. Bizkor-bizkor jantzi ginen, bezperatik prestatuta baikeneuzkan aulkietan botak, jantziak eta baita maletak ere aldatzeko arroparekin. Ama, anaia eta hirurok babeslekura joan ginen, eta aita dibisioaren buruzagitzara.

Babeslekuan irratiz jakinarazi ziguten: faxisten lurreratze bat izan zen gure hirian.

Luzaro egon ginen lur azpian. Handik ordu batzuetara helduei alde egiteko baimena eman zieten, eta guri bertan egoteko agindu ziguten. Goizean ZIS auto bat iritsi zen; ogia eta bestelako produktuak ekarri zituen; horrelako autoak etxe guztietatik ibili ziren gau hartan. Jan genuen, ase ginen, baina beste mutil batek, Jurkak, eta nik gora irten nahi genuen nahitaez gau hartan: eta, besterik ez bazen ere, espioi bat harra-patzea lortzen bagenuen?

Azkenean patiora ateratzen utzi ziguten, baina ez ziguten baimenik eman kalera ateratzeko. Baina ezin izan genion eutsi. Jurka eta biok aldameneko pa-

tiora igaro ginen hormaren gainetik, eta handik beste batera eta hirugarrenera, eta, hala, hormen gainetik Subhi kalera irten eta han etxe txiki bateko teilatura igo ginen. Han gaude Jurka eta biok teilatuan eserita, zer egin erabakitzen, eta bat-batean non ikusten dugun: andre batzuk, emakumeak alegia, beren perrailez Gudaroste Gorriko soldadu bati joka. Altu eta ozen garrasi egin nien: «Ba al dakizue nori ari zareten joka? Zergatik jotzen duzue Gudaroste Gorriko soldadu bat?». Eta andre batek, emakume batek alegia, oiuhu egin zidan: «Eta zuk, ergel horrek, badakizu nor ari zaren babesten?». Kontua da tipo hori arropaz aldatzen eta Gudaroste Gorriko soldatuz janzten ikusi zutela kale-kantoiari, ardo-dendaren ondoan, upel batzuen atzean... Hil arte jo zuten. Gero emakume bat botikara joan eta telefonoz poliziarri deitu zion. Autoa nola iritsi zen eta faxista nola eramán zuten ikusi genuen.

Jurka eta biok geroz eta gehiago ari ginen hurbiltzen patioz patio hiriaren erdigunera. Gorki kalean, guardia batek harrapatu eta patiora eramán nahi gintuen berriro. Eztabaidan ari ginen berekin. Eta bat-batean, beste aldean, Gobernuaren Bankuaren ondoan, tiroak entzun ziren. Bi polizia emakume batzuei tiroka ikusi genituen. Tiroketa horretan, Gobernuaren Bankutik hiru polizia azaldu ziren, eta aurreko bie aurre egitera joan ziren korrika. Segituan ohartu ginen bi haiek alemanak zirela, emakumeen kontra tiroka ari zirenez, eta besteok egiazkoak. Alemanek gure polizietako bi zauritu zituzten; odoletan erori ziren lurrera. Aleman batek tiro egin nahi zien, destatu egin zituen; baina gure egiazko poliziak bertan hil zuen. Bizirik geratzen zen alemanak mendekuz gure poliziarri tiro egin nahi zion, baina orduan guardiako ofizialak oldartu zitzaizkion eta errebolberra eskuetatik kendu zioten.



Polizia gehiago etorri ziren laguntzera eta alemanari eskuak lotu zizkioten. Inguruan jendetza. Poliziak hamar pausoz urruntzeko agindu zien, inguratu zuten eta eraman egin zuten. Jende artetik harrika egin zioten alemanari, baina poliziak ez zien utzi jaurtitzen.

*Volodia Pekurovski, 13 urte, Sinferopol-ekoa.*

42-II-10ean jaso, 1. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Bi behatz**

Gerra hasi zenean, gure umezurtz-etxeko zuzendariak bilera bat egin zuen norbaiti zerbait galdetzen bazioten, hitz egin ez zezan. Gero, talde bereziak jarri genituen saboteatzaileak eta espioiak harrapatzeko. Talde txikitik basoan ibiltzera ateratzen hasi ginen. Oinez ibiltzen ginen, berriketan, pasieran bagenbiltza bezala. Behin gizon bat suertatu zitzaigun. Uniforme militarrez jantzita zegoen, eta aurrendari agurra egin genion. Diosala egin zigun, baina ikusi genuen ez gintuela sobietarren moduan agurtzen, alemanen moduan baizik, bi behatz kopetan jarritz. Eskualdeko irakaskuntza-zuzendaritza non zegoen galdetu zigun. Elkarri begi-keinua egin eta lagunduko geniola esan genion. Hiru berekin joan ginen, beraz, eta bi aurreratu egin ziren. Poliziarengana joan ziren, eta gu gizonarekin hurbildu ginenean, poliziak gelditu eta eskatu zion: «Dokumentuak?». «Nortasun-agiria besterik ez daukat», esan zuen. Nortasun-agiria ateratzen hasi zenean, larruzko zorrotxo bat atera zuen agiriarekin batera. Poliziak esan zion: «Eta hau zer da?» – eta hark: «Ez daukat ezer». Poliziak zorrotxoa kendu zion, eta hiru nortasun-agiri zeuzkan han: bat alemana, beste bat ingelesa, eta hirugarrena sobietarra. Handiak, gure jaiotza-agiriak bezalatsu.

Poliziarengana eraman zuten eta argazki-makina bat eta Minsk hiriko argazkiak aurkitu zizkioten.

*Liuba Bulgakova, 15 urte, Gomel-ekoa.*

42-IV-04ean jasoa, 13. umezurtz-etxean, Taxkenten.

## **Elizan**

Alemanek ustekabeen bonbardatu zuten tren-geltokia, eta gure umezurtz-etxekeek oinez joan behar izan genuen.

Laurehun kilometro egin genituen oinez. Errusiarantz jo genuen. Smolensk zen gure helburua. Horretarako izendatu zuten pertsonak gidatzen gintuen. Ebakuatzaile zuen ezizena. Horretarakoxe bat, besterik ez.

Basoz ibili ginen gehiena, belarretan eta hosto gainean egiten genuen lo batez ere. Errepideetan alemanak zebiltzan ordurako.

Baina behin oso nekatuta geunden eta herri batean sartzea erabaki genuen. Herria oso lasai zegoen eta ez genuen ezer txarrik pentsatu. Amona batek beregana joateko deitu zigun, leihotik eskuaz keinu eginez. Herriaren ertzean zegoen haren etxea. Ezer esan ahal izan baino lehen, gar handi bat ikusi genuen leihoan. «Amona, zer da hori?» galdetu genion. Eta xuxurlaka esan zigun: «Alemanek hamabost urtetik gora zaharretarainoko emakume guztiak elizara eraman dituzte eta han erretzen ari dira orain. Ni sotoan nengoelako salbatu naiz». Orduan, korrika alde egin eta baratzean ezkutatu ginen. Eliza giltzarrapo handiz itxita zegoen dagoeneko, eta inguruan txirbila zabaldua. Eliza mutur batetik sutan hasita zegoen, eta aiene urragarriak entzuten ziren handik. Baina ofizial bati asko gustatzen zitzaion, nonbait, neska bat. Leiho batetik sartu

eta besotik tiraka atera, leihoa itxi eta alde horretako txirbilari su eman zion. Eta neskak ihes egin zuen.

Alemanak eliza inguruan zeuden biribil batean. Mutil gazte bat haiengana hurbiltzen ikusi genuen. Etxetik atera eta zuzen zihoan, gero lasterka hasi zen, ofizialarengana. Gure aldetik aurpegia ez zitzaion ikusten; negarrez ari balitz bezalako ahotsa bakarrik. Eta ofizialari galdetu zion: «Zabal iezaiezu!» –eta beste zer-bait esan zion, ez genuen entzun– mesedez emakume haiek ez erretzeko... Ofizialak bere sablea atera eta bu-ruan jo zuen.

Orain askotan esertzen gara hemen pila batean eta eseri eta pentsatzen dugu: zenbat eta lehenago horiek egotzi, orduan eta lehenago ahaztuko dugu horien izena ere, eta eraikiko ditugu berriro gure hiriak.

*Liuba Bulgakova, 15 urte, Gomel-ekoa.*

42-IV-04ean,jasoa, 13. umezurtz-etxean, Taxkenten.

### **Ebelina Matsiuptxenko**

Ezagutzen duzu Lepexinskaia Moskun? Olga Sergeievna?

Bost urtez ikasi nuen harekin. Bigarren ikaslea ninduen.

Hango umeek asko maite ninduten. Eta ospitalean ere maite ninduten. Eta hemen, umezurtz-etxean, maite naute. «Ez hitz egin!» esate hutsarekin obeditu egiten didate, baita bihurriek ere; urre bizia dira. Hori ni oso aktiboa naizelako, nik uste. Dantza egiten dut, gitarra jotzen dut, badakit brodatzen, eta bileretan hitz egiteko gauza naiz.

Baina niri pilotu izatea gustatzen zitzaidan gehiena. Dantzari; eta pilotua! Baina ez nintzen sartu hegazkintza-klubean.

Adinak huts eginarazi zidan. Ez nituen hamabost urte oraindik. Beraz, ez ninduten eraman hegazkintza-klubera.

Horregatik, gerra hasi zenean, erizain talde batean sartu nintzen segituan.

Lehenengo bombardaketaren ondoren, lagun bat eta biok kalera atera ginen. Bomba apurtzaile bat erori eta sutea zegoen lekuren batera joateko gogoa genuen. Kale batzuk igaro genituen, eta janari-denda bat zegoen kantoian. Txiki-txiki eginda zegoen.

Gero sutan zegoen etxe batera jo genuen korrika. Han, hain zuzen, aurrezkien kutxa zaintzen ari ziren suhiltzaileak. Lagunak eta biok suhiltzaileei oholak garraiatzen eta botatzen lagundu genien.

Suteari begiratu eta Hitler eta haren putreak madarikatzen genituen. Hurrengo egunean, lagunak topatu nituen Arbat-en. Lotsarazi egin nahi ninduten, antolatu gabe nenbilerako eta kolpe zorririk jotzen ez nuelako eta beraiek gure etxean guardia egiten zeudelako. (Aita gerra frontera joan zenean eta ama ahizparekin Riazan-era ebakuatu zutenean, hutsik zegoen gure apartamentutik alde egin eta lagun batekin bizitzera joan nintzen).

Lotsatu egin nintzen, eta hutsik zegoen etxera itzultzea erabaki nuen. Lehenengo alarmarekin batera, osasun-poltsa hartu eta bombardaketen kontrako babeseko zerbitzuan lan egiteko baimena eskatu nuen. Han, urduri zeudenei baleriana eman eta lasaitu egiten nituen. Eta, bat-batean, garrasi bat entzun nuen. «Zabalduteak!, prestatu oheak!» ari ziren oihuka. Zerbitzuan nengoenez, niretzat zen. Bi neskak, erizainak haiek ere, neska gaztetxo bat zeramaten andetan. Buzia bendaz lotuta zuen osorik, baina loturetatik odola zerion. Ikarak hartu ninduen oso-osorik eta ez nekien

zer egin. Gure zirkuluan bendarik zailenak jartzen ikasia genuen, baina sekula ez nuen hainbeste odol ikusi. Paketea ezin inola ere zabaldu; baina aski zen sokari tira egitea, eta berez zabaltzen zen. Baina nire onera itzuli nintzen eta, pertsona bat salbatzeko, berehalaxe ekin nion lanari. Benda odoldua kendu eta berria jarri nion. Pozik nengoen horren oztopo latza gainditu nuelako; eta aldi berean izututa nengoen: ondo egin ote nuen?

Neska hura –Bera zuen izena– berehalaxe konortatu zen. Lehenik eta behin, galdetu zidan: «Esadazu, adiskidea: erori egin naiz ala zauritu egin naute? Esadazu egia». Banekien egia esaten bazitzaion, gaizki jokatu zuela, eta engainatzea erabaki nuen: korrika zihoala estropezu egin eta erori egin zela.

Anbulantzian etorri zen sendagileak esan zidan: «Oso ongi jarri duzu benda».

Hurrengo gauean ez zen erasorik izan. Nire lagunak barre egiten zuen: «Alemanek atsedean eguna eman digute».

Eta orduan gu, erizainak, teilatuan egon ginen zerbitzuan. Han, hegazkinen kontrako kanoietatik gertu, hegazkinen kontrako kanoilariak zeuden, eta norbait ustekabean zauritzen bazuten ere, lehen laguntza emateko zerbitzuan egoteko baimena eman ziguten.

Lehenago ere askotan egona nintzen teilatuan. Baina mutiko bihurriak handik alde eginarazteko edo usoak uxatzeko igotzen nintzen orduan, eta orain bonbei egin behar nien aurre... Pozik nengoen gerra bat behintzat bizi behar nuelako. Ordu arte amaren eta aitaren inbidia izaten nuen beti, gerra zibilaz hitz egiten zutenean. Eta egiazko gatazketan parte hartzen nuela eta aberria defendatzen nuela ere amesten nuen. Bai-

na, egia esateko, gaur egungo gerran beldur pixka bat ere izan nuen inoiz.

Kutxa baten gainean eseri eta zerura begira egoten nintzen. Izarrez beteta eta distiratsu zegoen. «Tira, gaur behintzat ez dira etorriko; zerua argiegi dago» esan nuen nire baitarako. Baina, bai zera! Horixe esan besterik ez, eta bost minuturen buruan, alarma. Aleman hegazkinak azaldu ziren urrutian. Berehalaxe hegazkin talde osoa harrapatu zuen argi-proiektore batek. Multzo estu batean zihozten: sei pieza. Proiektoreak hain argi argitzen zituen, non agerian ikusten baitziren alboetako ikur faxistak. Oso beldur nintzen Kieveko tren-geltokiaz. Berehalaxe botako dute bonba bat han. Baina orduan hegazkinen kontrako artilleriako soldaduek tiro egiteko agindua jaso zuten kablez. Beren zeru aldea eremutan banatuta zeukaten, eta etsaiaren hegazkin multzoa gure eremuan aurkitzen zen hain justu. Hegazkinen kontrako artilleriako soldaduak segituan hasi ziren tiro egiten. Zarata hasi zen teilatuan. Belarriak behatzez eta lepo-zapiatz tapatzen saiatu nintzen, baina ez zuen batere lagundu. Gure kanoietakoa batek etsaiaren taldearen erdi-erdian eman eta hegazkin bat jo zuen. Berehalaxe su hartu eta beste bat jo zuen. Kiribilean erori ziren Moskva ibai aldera.

Une horretan tiro egiteari uzteko agindua jaso zuten gure artillerialariek. Beste leku batean hasi zen tiroketa. Baina laster gure buruen gainetik igaro zen berriro etsaien hegazkin bat. Bonba bat bota zuen. Txistu bat eta haizearen ulua entzun nuen. Guretzat ez zela iruditu zitzaidan, guregandik gerturako baizik, baina guretzat zen. Gure etxeko teilatuan, edertzeko asmoz, pabiloitxo bat jarrita zegoen lekuan egori zen bonba. Ni nire adiskide Nadiaren ondoan nengoan; gure klasekoa eta gure erizain taldekoa zen (matematikan aparteko

ikaslea); bat-batean zerbaitek jo ninduen buruan. Nire onera etorri nintzenean, amesgaiztoko koadro bat ikusi nuen: nire adiskide Nadia lurrean etzanda, eta hankarik gabe. Garrasi egin nuen eta gure beste lagunari, Raiari, hots egin nion. Nadiexda besapeetatik eta izterretatik helduta jaso eta bonben kontrako babesera eraman genuen. Han zauria bendatu eta Nadiari konortea itzularazten ahalegindu ginen, baina alferrik izan zen dena.

Anbulantzia bati deitu eta teilatura itzuli ginen berriro.

Zutitu eta burua biraka hasi zitzaidan: Nadiaren hankekin estropezu egin nuen. Haize bafadak urrunera eramanak zituen. Garrasi egin nahi nuen baina ezin, arima eztarrian kateatuta neukan. Eskerrak Raia lasterka etorri eta bonba-babesera eraman ninduen.

... Laster haur zaharren guztiok Moskutik alde egiteko agindua eman ziguten. Ebakuazio gunean, txartel bat eman eta trenean sartu ninduten. Riazanera joan nintzen, amarengana, eta handik, harekin eta ahizparekin, Asia Erdialdera. Frunze<sup>6</sup> hirian trenetik jaitzarazi eta ospitalera eraman ninduten: nerbioak zirela-eta begietan mina nuen. Zoragarri tratatu ninduten, ia minuturo biltzen zuten sendagileen kontseilua, eta hobetzen hasi nintzenean, ez zekiten nora bidali ere... Dianina-tantak begietan, dikaina, fluristina; elkarrekin errimatzen zuten botika guztiak.

Behin, bat-batean erizain bat gelan sartu eta esan zidan: «Begira, zure aitaren argazkia ez da egunkarian?». Begiratu eta negarrez hasi nintzen. Aita zen. Bere ausardiagatik domina bat irabazi zuen, eta guda-rien artean jaso zuten.

---

6 Gaur egun Biskek, Kirgiziako hiriburua.

Horixe, Hitlerrez mendekatuko gara, beti, beti... Aitak mendekua hartua du dagoeneko. Asko birrindu zituen.

*Valia Matsiuptxenko, 15 urte, Mosku-koa.*

42-III-17an jasoa, Berrogeialdiko umezurtzetxean, Taxkenten.

### **Arrastaka**

Berrogeian Leningradeko Lanbide Eskola Teknikoan ari nintzen ikasten. Gerra hasi bezain laster, nire herria zegoen lurraldea okupatuta zegoela irakurri nuen Informazio Bulegoan.

Eta nire lurraldea okupatuta zegoela irakurri nuenean, partisano-destakamendu batera joatea erabaki nuen.

Berehalaxe onartu ninduten. Gorputzez txikia naizen arren, 16 urte banituen ordurako.

Gudu baten ondoren, inguratuta geratu ginen hamaika lagun. Gureetarantz gindoazenean, suntsiketalanak egiten genituen bidean, autoak, trenbideak, zubiak leherrarazten genituen. Arrastaka gindoazen, saguak bezala, eta ikuskari bera ikusten genuen alde guztietan, alemanek zekalea, patatak, dena biltzera behartzen zutela jendea. Herri bakoitzean bi aldeetan zeuden urkamendiak. Alemanak ohartzeko baziren apartamenturen batean hangoa ez zenen bat sartu eta berriro ateratzen zela, jabeak urkatzen zituzten. Inorri ez zioten uzten inor lurperatzen, beleak mokoka ari bazitzaizkion ere, ez zien axola. Eta norbaitek beldurrik ez bazuen eta bereak lurperatzen bazituen, herri osoa erretzen zuten alemanek.

Volosovo-ko geltokiaren atzean gertatu zen hau. Basoan barrena gindoazen eta gero zekale artetik. Baso bazterretik tropen mugimendua eta alemanek herrian



zer egiten zuten zaintzen genuen. Preso zeuzkaten soldadu zaurituek eta herritarrek uzta nola biltzen zuten ikusten genuen. (Alemanek larri zaurituak hil egiten zituzten beti, baina lanen bat egiteko gauza zirenak, haiek gorde egiten zituzten). Uzta bildu ondoren, gauean, patio batean biltzen zuten uzta hori. Gau batean bi gazte ikusi genituen baratzean zehar, ukalondotan bermatuz, esku bakoitzean keroseno-botila bana zutela, kontu handiz gure aldera hurbiltzen. Argi handi bat piztu zen, gariak etxe handi baten altueraraino egiten zuen sua, garrak bizkor zabaltzen ziren. Eta biak lasterka abiatu ziren basorantz; dei egin genien. Bazuten harremana partisano-destakamenturen batekin, itxuraz: armak zituzten... Alemanak galsoroa itzaltzeari ekin zioten, baina non zegoen garia! Tiro egin genien eta gero basoan barrena sartu ginen. Eta beste gau batean berriro herri hartara itzuli ginelarik, alemanik ez zen geratzen, eta bertako herritarrik ere ia batere ez, torturatutako jendea eta urkatuak kulunkan, besterik ez.

Egiteko bat genuen hara joan ginenean, herri batera joan, herritarren artean traidorerik bazen jakitea. Hilda zeuden alemanei kanpoko arropa kendu, guk jantzi eta aurrera jarraitu genuen. Agure baten isbara joan ginen, ateak itxi eta agureari galdezka hasi gintzaizkion, alemanak bagina bezala: non dago partisanoen taldea? Non daude komunistak? Alemanak, esploratzaileak bagina bezala eta errusieraz bagenek bezala. Baina agurea, burugogorra; ez zekiela ezer. Diru pila bat jarri genion mahai gainean, aleman markoak, baina horrekin ere ez zuen amore eman; bistan zegoen gure aldekoa zela, esan bezala. Orduan errusiar gerrillariak ginela adierazi genion, eta Gudaroste Gorriko unitateekin elkartzera arriskurik gabe nola joan

esan zigun. Bideari zegokion guztia azaldu zigun; eta orobat esan zigun herrian bertan bazela errusiar nazionalitatea ez zuen bat, alemanak maiz bisitan joaten zitzaizkiona eta haiekin edan eta abesten zuena, haiekin ibiltzen zena, hitz batean. Traidorea zen, dirudienez, eta dena kontatzen zien. Beno, aleman jantziak genituenez, morroi horri ere bisita egin genion, pasiera bat egiteko. Aleman agintariak bidali gintuela esan genion, eta esateko noiz azaldu behar zuen partisansoen taldeak eta nor ziren han, herrian, aleman soldaduen kontra erresistentzian ziharduten komunistak. Esan zigun biharamunean eguerdiko hamabiak aldera etortzekoa zela partisanso talde bat, eta herritarren artean alemanen kontra zeudenen izenak aipatu zizkigun. Orduan agerian jakinarazi genion ez ginela alemanak, errusiarrek baizik, eta bere jarduera horrengatik hil egingo genuela. Ia zorabiatu zen. Nolanahi ere, ez ginen torturatzen hasi, ez baikinena alemanak, aleman uniformeak bagenuen ere; eta tiroz hil genuen. Hiru tiro jo genizkion...

Berriro joan ginen agure hura bisitatzerako, eskerak eman genizkion. Bideari nola jarraitu aholkuak eman zizkigun berriro, eta goizerako gure lurraldean geunden.

Han agindu pertsonal bat eman zidan buruzagiak: trenbideko zubia leherraraztea. Txikia naiz eta horrek asko balio du.

Granada bat hartu nuen, pistola hartu, lehergailuak hartu, jakaren azpian ezkutatu, bizikletara igo eta joan nintzen. Etsaiaren lehenengo lerroraino joan, bizikleta basoan ezkutatu eta oinez jarraitzen nuen. Leku batzuetan lasai sartu nintzen zuhaixka artetik, soilguneetan herrestan. Zubira iritsi aurretik, jaiki eta errepidera irten nintzen.

Eta aleman auto bat agertu zen ezerezetik. Alemanen autoaren kaxa garaia zen eta isilik, ezer entzuten ez zela, hotsik egin gabe zebilen.

Eta kaxan bi soldadu zeuden, eta kabinan gidaria eta ofizial bat. Oinez jarraitu nuen, ezerk axola ez balit bezala. Autoa nire parera iritsi zenean, gelditu eta ofiziala autotik jaitsi zen. Kaxara igoarazi ninduen, gidariari zerbait esan zion, eta aurrera! Nora arraio naramazue, pentsatu nuen, hizkeran antzeman didazue benetan? Lurrezko bidetik errepidera desbideratuak ginen. Han ukabilez kabina jotzen hasi nintzen, jaitsi nintzaten. Autoa gelditu eta ofiziala kabinatik atera zen. Pistola atera eta burura destatzen hasi zitzaidan. Eta, zer?, ez nuen pistola ikusi, ala? Eta esan nien: Jaitsi nazazue, ez daukat astirik zuekin autoan hara eta hona ibiltzeko! Orduan zerbait esan zien bere soldaduei eta atzean eseri zen kaxan. Autoak aurrera jarraitu zuen; soldaduek heldu zidaten, batek eskuetatik, bestek hanketatik, eta martxan bota nahi ninduten. Hori ezin zen inola ere onartu, lehergailuak bainituen jakaren azpian, eta zuhurtziarik gabe botatzen baninduten, inolako probetxurik gabe leher bainintekoen. Erreguka, negarrez hasi nintzen, garrasika. Orduan autoa gelditu zen, ofiziala jaitsi, lepotik heldu zidan eta lokatzetara bota ninduen zuzenean. Zorionez.

«Tira –pentsatu nuen– alemanek urrunduko naute zubitik; alemanek hurbilduko naute».

Eta bazegoen han egurrezko zubitxo bat, txikia. Haren ondoan eseri nintzen. Berrogeiren bat minutu geroago badator aleman auto bat. Zubitik gertu geldia-gotzera egin zuenean, salto egin, atzeko aldetik heldu eta abiatu egin nintzen. Trenbideko zubi ingurura hurbiltzean, salto egin nuen.

Gaua iritsi zen, dagoeneko ilun zegoen, noski. Trena hurbiltzen ari zela entzuten zen. Zubitik gertu, aleman zaintzaile bat zebilen hara-hona. Arrastaka hurreratu egin nintzaion. Bizkarra eman zidanean, tiro egin nion. Ondoren, zubipera joan eta behar zena jarri nuen. Ehun metro ere ez nituen egin, eta eztanda entzun zen. Egia da tren horrek munizioa zeramala, eztrandak entzuten zirelako eta kartutxoak lehertzen zirelako.

*Saxa Astreiko, 16 urte, Podiatxenko herrikoa (Bielorrusia).  
42-IV-02an jaso, Taxkenten.*



## EPILOGOA

### UZBEKISTANEN

Frontearen lehen lerrotik ebakuatutako haurrei izugarrizko zirrara eragin die jasan behar izan dutenak. Ania Lebelek begien aurrean ikusten ditu oraindik neskatoaren behatzak goroldiotan «zein bere alde-tik banatuta», eta Donia Khaienkok nekez ahaztuko du aita esnatzen alferrik ahalegindu zen eta «negar egin eta pusken bila hasi zeneko» une hura; eta Liuba Vatnikek inoiz ere ez du ahaztuko, noski, «bat-batean amaren eskua askatu» eta bonbardaketaren ketan bakarrik geratu zeneko une hura...

Eta, hala ere, hemen bildutako kontaketa guztiek bukaera zoriontsua dute. Ohar labur batez bukatzen dira; halako edo halako umezurtz-etxea, Taxkent. Ohar horrek esan nahi du haurrak ez zirela hil esesten zituzten metrailagailu faxisten balek jota, baizik eta sobietar estatuaren eta iritzi publikoaren arretak fronte inguruko eremutik atera zituela, babesgabezia-tik salbatu zituela, jantzi zituela eta elikatu zituela. Uzbekistan fronteko lehen lerroko haurrei abegirik samurrena eskaini zieten sobietar anaiarteko lehenengo

errepubliketako bat da, zalantzarik gabe. Uzbekistango hiri eta kolkhosek milaka umezurtz edo galdutako haur babestu zituzten beren hormen artean. Boria Voronin, Taxkentera, atzeguardiara ekarriak, zitzu batean itzuli nahi du berriro frontera. Gerra amaitu bezain laster berriro ikasteari ekingo diola agintzen du. «Orain borroka egin behar dugu denok» –dio. Baina orain borrokatu ez baina ikasi egin behar duela azaltzen diote. Berriro «gerrara joateko» egin zituen ahalegin guztiak alferrik izan ziren, eta bere ikasmahaian kokatu dute.

Valia Matsyuptxenko «aktiboa» noizbait etenda-ko ballet-ariketak berriro egiten hasia da egunez.

Eta Emelian Umanskyk bereziki belarri ona erakutsi du musikarako. Beste haurren inbidiarako, harro ibiltzen da Musika-eskola militarreko ikasleen uniformeaz. Didus Buriakov, Emelianen bizikletari bultza egin ziona, pozik egongo litzateke bere Maisterniako ikasle ohiak, firme jarririk, eskolako komisarioari parte nola ematen dion ikusita.

Rokha Oser fresatzaile-ikasketak egiten ari da Stalin izeneko lantegian.

Liuba Vatnik, «errumaniarrek nola torturatzen zuten» ikusi zuena, eta Dunia Semenova tirokatutako soineko zuriarekin, eta Liuba Bulgakova, elizan «oihu ikaragarriak» entzun zituztenak, eta Uzbekistanera eraman zituzten beste guztiak orain ez dira faxisten aparak, berriro sobietar ikasleak baizik, galdutako ikasgaiak irrikatan berreskuratzen.

Tanixka Aisenberg da guztietan zorionekoa: ama, sutan zegoen bagoiaren barruan geratua, ez baitzen hil. Salbatu egin zen, eta, Pravda egunkarian Taniaren historiaren zati bat irakurrita, Taxkentera joan eta berekin eraman zuen Tania.

Baina lehengo amak aurkitzen ez badira, berriak aurkitzen dira sarri.

–Badakizu? Gure Valia semetzat hartu dute –horrelako hitzez agurtzen gaituzte umezurtz-etxeke haurrek.

Edo:

–Entzun duzu? Gure Marusia alabatzat eraman dute.

«Semetzat hartu», «alabatzat eraman» Tax-kenteko errealitateak sortutako terminologia da. Uzbekistango abertzale askok babesten zituzten umezurtzak beren familietan. Riazandar sudurmotz begi-urdinak, ukrainar begi-beltzak, Besarabiako haur juduak eskubide guztien jabe sartzen dira uzbekistandar familietan.

Tahir Sultanov irakaslearen familiak hamar urteko mutila adoptatu zuen. Tahir Sultanovek 24 urte daramatza irakasle. Bost seme-alaba ditu. «Baina gobernuak herritarrei haur umezurtzak familietan hartzeko eskatu zienean, seigarrena hartu nuen –esaten du Tahir Sultanovek–. Bosti jaten ematen zaien lekuan, seigarrena ere aseko da; beraz, nire emazte Oityra-ekin erabaki genuen. –Eta eskolan esan zuen:– hona nire haur berria, lagun iezaiozue galdutakoa ahalik eta lasterren berreskuratzen».

Pavlik patioan, zuhaitzen gerizpean saltoka ari da. Orain ez da Pavlik, Kamel da orain. Gustatu egiten zaio izenaren doinu berria. Bere eskolako koaderno guztietan arreta handiz jarri du: «Tahirov, Kamel».

«Nire etxeokak hil egin zituzten –dio Pavlikek–. Etsaiek. Orain baditut aita eta ama; hauek. Anai-arreba berrietatik, Kemalia maite dut gehien: lorategira joaten garenean txistuak egiten ditu niretzat. Uzbekoz hitz egiten dit; batzuetan ulertzen diot, beste batzuetan ez.



Uzbekoz pixka-pixka bat badakit zenbatzen: bir, ikki, utx...».

Beren familia berrietan, haurrak poliki-poliki bere onera etortzen dira eta batzuek geldiroago, beste batzuek bizkorrago haurren kezka gabetasuna berreskuratzen dute.

Maika Lipatovak lirioak landatu zituen lorategian. «Oso gustura nago Uzbekistanen –dio–. Iparraldean guretzat oso ondo, jakina, baina han oraindik ez daude hemen bezalako lore handi eta lodiak».

Maikaren aita berria zapataria da. «Bidaiaren ondoren ospitalean nengoen –kontatzen du Maikak–. Alemanek hankan zauritu ninduten metrailagailuz. Halako batean, etzanda nengoen afalaurrean; horretan erizaina sartzen da eta esaten dit: Aita eta ama etorri zaizkizu». Berriak ziren. Sendagileak hasieran ez zuen etxera joateko baimenik eman nahi; «Astebete barru eramango duzue» esaten zien, baina konbentzitu egin zuten eta etxean segituan sendatu nintzen. Orain so-kasaltoan ere egin dezaket».

Horrela Maika «alabatzat hartu zuten». Egun horretatik aurrera berriro hasi zen Maikaren haurtzaroa, faxisten bonba batek etena.



